

GUaiXE.eus



Urbasako saroian eraildakoen ondorengo bilera



Gizartea >> 5

Arakama eta Arnanz Yoseikan Budoko Europako onenen artean. Bratislabako txapelketan Euskal Selektzioarekin aritu ziren



Kirolak >> 17



Altsasuarrak hauteskunde iragarkien aurretik pasatzen joan den astean.

Mediku zerbitzu euskalduna eskatzen

Etxarri Aranazko osasun etxeko osasun zerbitzu guztiak euskaraz jasotzeko esku-bidea aldarrikatzen duen kanpaina aurrera doa >> 3

Irañetako araztegia aurten egingen dute >> 7

Uharteko eskolan gela berria egingen du udalak

Haur Hezkuntzako ikasleen matrikulazioaren ondorioz sortutako premiari erantzunen zaio horrela. Patioko zati bat pasabide izanen da >> 16

Aldaketa. Izan edo ez izan

Iganderako udal eta foru hauteskundeak daude deituak. Nafarroako Gobernua eskuz aldatuko den edo ez da igande gauean argitzen hasiko den zalantzetako bat. Sakanan, bitartean, 15 udal eta 13 kontzeju berrituko dira. Udaletarako 34 zerrenda aurkeztu dira, 14 kontzejuetarako. 416 hautagai guztira >> 14-16

Valorg proiektuko bileraren balorazio ona egin dute >> 3

Gazteriaren aldeko apustu konprometitua eskatu dute >> 5



Frigo Time, S3DAren lehen film laburraren mustutzea >> 23



Binakako lasterketa bihar Etxarrin >> 17



Dantza integral eta kontakt dantza saioak Irurtzunen >> 22

Sakanaoptika
optometria • audiometria • contactologia

AUDIFONOETAN %15 DESKONTUA

2x1 BETAURREKOETAN
(progresibo eta eguzkitakoak barne)

Uztailaren 30a arte.

Intxostia zeharbidea 10 • Altsasu
948 563 124 • www.optikasakana.com

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.net
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Joseba
ZORIONAK gure al-baitariari!!! Ongi pasa zure 10. urtebetetzean zure lagunekin. Muxu handi bat Ane, aita eta amaren partez.

Egoitz
ZORIONAK bitxito!! 2 urte!! Ongi pasa zure egunean, Oihan, aita eta amaren partetik. Muxu potolo bat.



Egoitz
Arbizu eta Aguraingo familiaren partetik, egun ona pasa eta muxu handi bat.



Izadi Garcia Gurutxarri
Gue tutuk danekos urtiat!!! ZORIONAK eta muxu handi bat fameli guzian partez.



Lorea Lacalle Etxarri
ZORIONAK potxola!! 3 urte!! Egunez egunera gero eta handiagoa!! Ongi pasa zure egunean eta muxu pila bat etxekoan partetik.



ZORIONAK amiña Akux!!! Iye tarta goxuat etteko jartzen zan listo. Besarkada erraldoia denon partez.

maiatzak

22-28

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Kaotiko eta Los Tronchos. Maiatzaren 22an, ostiralean, 22:30ean Altsasuko gaztetxean.

Alerta Gorria. Maiatzaren 23an, larunbatean, 23:00etan Arbizuko argibidea elkartearen.

Dr Inferno. Maiatzaren 23an, larunbatean, 24:00etan Lakuntzako Sorginak tabernan.

Dj Bertxo & kontaktpeople. Maiatzaren 24an, igandean, 00:30ean Irurtzungo Pikuxar euskal txokoa.

Las guindillas. Maiatzaren 24an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan.

Bastards on parade. Maiatzaren 28an, ostegunean Altsasuko gaztetxekeo plazan, akustikoa.



Gaur Kaotikoz gozatzeko aukera izanen da Altsasuko gaztetxean 22:30etik aurrera.

Dantza

II. Euskal Herriko Kontakt Inpro topaketa. Maiatzaren 22tik 24ra, ostiraletik igandera, Irurtzunen. (Ikus 22. orria).

Antzerkia

Tres sombreros de copa. Maiatzaren 23an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Atarapanta antzerki taldea.

Film laburrak

Film-laburren lehiaketako sari banaketa. Maiatzaren 22an, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Frigo time. Maiatzaren 22an, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean. S3DA.

Mendi irteerak

Borregil. Maiatzaren 24an, igandean, goizean. Iratxo mendi taldea.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Xabierko gaztelua. Maiatzaren 23an, larunbatean, 8:00etan Altsasuko kultur gune partetik. 120 km. Zikloturista taldea. Aurretik izena eman.

Mirutegi eta harrespila. Maiatzaren 24an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik edo 9:20an Urbasako kanpinean. 53 km. Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.

Erakusketak

Herriko margolarien, eskulangile eta jostunen lanak. Maiatzaren 23an eta 24an, larunbatean eta igandean, Lakuntzako kultur etxean.

Emarock. Maiatzaren 31ra arte Etxarri Aranazko tabernetan. Saioa Cabañas.

Itziar Nazabalen arte eskola. Maiatzaren 31ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Pausoz pauso, mendiz mendi helmugaraino. Mendi lasterketen prestaketa Jokin Lizeagarekin. Maiatzaren 22an, ostiralean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian.

Donbas. Maiatzaren 23an, larunbatean, 18:00etan Arbizuko Argi Bidea elkartearen. Hizlaria: Lur Gil kazetaria.

Nekazaritza biziberritzailea. Maiatzaren 26an, asteartean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. Hizlaria: Jairo Restrepo.

Literatura

Alizia Iurralde miragarrian liburua irakurketa publikoa. Maiatzaren 28an, ostegunean, 18:00etan Olatzagutiko liburutegian.

Tailerrak

Larraidantza. Maiatzaren 22an, ostiralean, 19:00etan Lakuntzan.

Elkartasun brotze tailerra.

Maiatzaren 22an, ostiralean, maiatzaren 26an, asteartean eta maiatzaren 28an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko gaztetxean. Edumerekin bat.

Donbasekin elkartasun eguna. Maiatzaren 23an, larunbatean, 18:00etatik aurrera Arbizun. Argi Bidea elkartearen.

Haurren eguna. Maiatzaren 23an, larunbatean, Etxarri Aranazten.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 22an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 24an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzeak.

Ostiralero

SAIOA

9:30etan

Gaurko gaiak:

- Oskar Estanga, dantza integrala eta kontakt dantza saioez

Esataria: Eneida

107.3 FM

beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

SAKANERRIA

Sakana erdialderako mediku zerbitzu euskalduna eskatzen

Nafarroako Gobernuari zuzendutako eskabidea sinatu ez dutenek maiatzaren 31ra arteko epea dute. Lakuntza eta Urdiain bitarteko herritarrek sinatu dezakete eskaera, baita Emakumeen Arreta Zerbitzua erabiltzen duten sakandar guztiak, larraundarrak eta leitzarrak ere

Apirilaren erdialdetik martxan dago Etxarriko Medikuko euskalduna nahi dut kanpaina. Etxarri Aranazko osasun etxeko osasun zerbitzu guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea aldarrikatzea da helburua. Etxarri Aranazko Udalak, EHEk, UEMAk eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak sustatu dute kanpaina. Herrita-

ren eta erakundeen orain arteko harrerarekin pozik daude.

Nafarroako Gobernuak Etxarri Aranazko osasun eskualdean euskarazko osasun asistentziarako eskubidea bermatzen ez duelako jarri zen kanpaina martxan. Hiru eskaera zehatz egin dizkiote foru administrazioari: osasun etxeko lanpostuak plantilla organikoan euskara eskakizuna izan dezate; dagoeneko lanean ari diren eta beharra duten langileek euskalduntze plan bat izatea eta, azkenik, idatzizko euskarriak ere euskaraz egotea bermatu dadila (hizkuntza paisaia, agiriak, zitazioak,



Medikuko zerbitzu euskalduna eskatzeko sinadura bilketa egiten ari dira.

txostenak, aholku-zerrendak...). Sinatutako idatziak Nafarroako Gobernuari, Hizkuntza Eskubi-deen Behatokiari eta Arartekoari aurkeztuko dizkiote.

Non sinatu

Hiru eskaerak jasotzen dituen idatzia sinatu nahi duenak Etxarriko udaletxeko bulegoan, liburutegian, osasun etxean, eskolan, ikastolan, Leku Ona tabernan eta AEKn ditu. Gainera, larunbat honetan eta hurrengoan, Haurren Egunean eta Euskal Festan, plazan sinadurak biltzeko mahaiak ere jarriko dira Etxarri Aranatzen.

Birziklatze tailerreko irakaslea behar da

Hondakinen kudeaketa integralerako enplegu eskola tailerreko irakaslea kontratatzeko deialdia egindu Sakanako Mankomunitateak. Hiri hondakinak eta hondakin industrialak birziklatzearen inguruko eskolak ematen ditu irakasleak. Sei hilabeterako kontratua izanen du, lanaldi osoan. Mankomunitateko baldintzatzaio jo ditu irakaskuntza eskumena izatea eta euskara jakitea (C1, EGA edo baliokidea), bestela maila froga pasa behar du. Interesa dutenek euren curriculumaealsua@navarra.es helbidera bidali behar du. Mezua- ren gaian Oferta F1183 jarri behar du. Bestela, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Altsasunduen bulegora eraman dezakete.



Valorg proiektuaren lan bileraren balorazio ona

Enplegu berdea deitzen den horretan lanpostu potentzial gehien sortzeko arloa hondakinen kudeaketa dela diote hainbat azterketek. Materia organikoaren kudeaketak lanpostuak sortzeko zein baldintza behar dituen aztertzeak elkar-tu ziren Valorg proiektuko kideak Altsasun asteburuan.

Europako Batasunaren proiektu horretan Frantzia, Belgika, Txipre, Eslovakia eta Sakanako ordezkariak urte eta erdiz ariko dira. Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterolak jakinarazi digunez, materia organikoaren kudeaketatik lanpostuak sortzeko bi faktore nabarmendu dira: prestakuntza eta legedia.

Manterolak azaldu digunez, "denok prestakuntza proiektuak ditugu. Horiek egokitasuna nola baloratu zehazten ari gara. Ikastarora joan aurretik eta ondoren lortzen diren jakintzak alderatzea eta lortutako prestakuntzak ikasleei lanpostuak sortzeko laguntza ematen dien baloratzeko tresnak



Frantzia, Belgika, Txipre, Eslovakia eta Sakanako ordezkariak bildu ziren Valorg proiektuaren lan bileran.

zehazten ari gara". Eskainiko dituzten prestakuntzek lanpostuak sortzeko duten balioa aztertuko dute proiektua indarrean den bitartean.

Alde horretatik, Manterolak jakinarazi digu proiektuko bost eskualdeetako prestakuntza plangintza anbizio handikoena Sakanakoa dela: "sei hilabeteko enple-

gu tailerra, Nafarroako Unibertsitate Publikoko uda ikastaroa eta auzo-konpost maisu-maistrendako trebakuntza".

Legedia

Valorg proiektuaren lan bileretan parte-hartzaileek legediaren inguruko proposamenak egin beharra sumatu dute. Sakanara eta

Nafarroara ekarri, Manterolak azaldu digu Nafarroako Hondakinen Partzuergoari proposamenak eginen dizkiotela. Bestalde, Nafarroako Hiri Hondakinen Plan Integrala idazteko prozesuaz ere gogoratu da garapen agentea eta lanpostuak sortuko dituen hondakinen kudeaketa politika aktiboen alde agertu da.

Amaya
Okindegia-gozotegia

ARAIA 945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua
- Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...

ALTSASU **OLAZTI** 948 468 755 **ETXARRI** 948 461 660



Aingeru Mikeo

Haurrak salgai

astekoa

Azkenaldian, mundu globalizatu salerosketa merkatuan, bada indar izugarriko produktu berria: haur jaio berria. Gainera, txakur eta besterekin bezala, hobekuntza genetiko nahierara bermatua. Aurreko urtean bakarrik, ehundik gora haur jaio berri euskal erosleek inportatuta.

Jakina, oso produktu freskoa behar denez, ez dago azoka edo

dendarik. Abokatu-bitartekari bidez gauzatzen da erosketa. Horrela, erosgaia prest dagoenean, zuzenean eroslearen eskutara. Sinplea.

Alabaina, saltzaile eta eroslearen arteko harreman komertziala ez da orekatua. Batek ahalmen ekonomiko handia, egoera larrian dagoen emakumea bestea. Emakumea ez, 'alokatutako

sabela' bestea, ama batek ez bailuke onartuko bere seme-alaba besteren eskuetan jartzea. Tartean, haur jaio berriaren duintasunerako berezko eskubideak.

Dagoeneko, haur baserriez hitz egiten da, India eta Peru bezalako herrialde txiroetan eta Ameriketako Estatu Batuetako gizarte geruza apalenetan. Dirutza

mugitzen duen produktu berria, dena merkatu bihurtzen duen kapitalismo basatiaren azokan. Aita-ama berrien harrotasuna, ama zaharren hutsunearen negar gazia.

Frantziaketa Ingalaterrak argi errefusatzeko dute jarduera hori inportazioari zailtasunak jarritz; estatuan, berriz, ekoizpena galarrizita dago, ez kontsumoa. Bes-

talde, gaia gori-gori dago Bruselako auzitegian.

Legediaz eta etikaz haratago, ekonomia sozial justiziadun batean, amak ez leudeke seme-alabak saltzera kondenaturik, ezinezkoa izanzen litzateke haurren salerosketa.

aingerumi@gmail.com

barrutik kanpora

Gizartea, Sakanako Garapena Sozioekonomikoaren parte

Sakanako langabezia tasen azken datuek (apirila) langabeziak behar egiten jarraitzen duela aipatzen digute, %18-19ko langabezia tasak izanik. 2013ko martxoko datuekin alderatuta, %8 gutxiago. Aldiz, 2008ko datuak kontuan hartzen baditugu, %8-9an egin du gora.

Argi dago krisi sozioekonomiko hau denbora luzean geldituko dela gure artean. Aurretik aipatutako datuak negatiboak izaten

jarraitzen duten arren, azken urtetako bilakaerak esperantza ematen digu bide beretik lanean jarraitzeko. Kontuan eduki behar dugu, langabezia tasen behar bada, batik bat, eskualdeko enpresak sortu dituzten enpleguengatik dela, edota sortu diren enpresa berrien efektuengatik.

Sakana 2020 Plan Estrategikoa, bide orri bikaina da

Industria zein zerbitzu sektoreak sustatzen jarraitu beharra

daukagu. Askotan ahaztu egiten zaigu duguna baloratzea!

Bestalde, ezin gara ahaztu lehen sektoreaz. Nekazaritza zein abeltzaintza azpi sektoreak, urte askotan zehar gure familien diru iturri nagusiak izan dira. Etorbizuna du, baina gure esku dago!

Turismoa eta energia aldiz, etorkizuneko bi sektore dira. Arlo hauetan gutxinaka eskualdeko eragile eta enpresen arteko armiarma sarea eratzen gabiltza.

Azkenik, ezin gara ahaztu eskualde honen iragana, oraina eta etorkizunaren zutarri nagusiez: komertzioa eta hezkuntza. Alde batetik, eskualde honen etorkizuna hezkuntzatik eratuko da, argi dago! Eta bestalde, zer izango ginen gu, Sakana, komertziorik gabe? Pentsatu nolakoak izango ziren gure herriak, kaleak...

Honakoan, azken hilabeteen Etxarriko zein Bakaikuko herri-errekin garatutako akzio bana

konpartituz gero. Herriarren iritzia eta parte hartzea sustatu nahi izan dugu. Bakaikun zein Etxarri, eskualdean ditugun indargune, ahalgune, aukera zein mehatxuak konpartitu eta hauekin hausnartzeko. Hausnarketa zein ideia bikainak atera dira eta prozesu honek, jarraipen bat izango du, seguru! Nor gehiago animatzen da?

Sakantzen Sarea

hara zer dien

Drogen kontsumoak nerabezaroan

Nafarroan atera berriak dira droga eta gazterien inguruan egin dako azken inkestak emaitzak, eta gaurkoan datu batzuk erakutsi nahi dizkizuegu, gaztetxoek egiten dituzten drogen kontsumoak direla eta. Nerabeekin bildutako datuak ikusita, ez dugu, ez, lasai egoteko motiborik eta hurrengo lerroetan aipatuko dugu honen zergatia.

Gaurko gazteak, informatuak badaude ere, ez du esan nahi sensibilizatuak daudela drogen kontsumoek dakarren arriskuekin. Oso nabarmena da jaitzi egin dela lehen aldiz kontsumitzen hasteko adina. Nahiz eta alkohola, tabakoa eta beste drogen kontsumoa jaitzi egin den beste urteotan egin diren inkestak ikusita, adin tarte honetan, kezkatzekoa dena da "kontsumo konpultsiboa" -astean zehar alkoholik ez

probatzea eta asteburuan, kantidad handia edatea denbora txikian, azkar mozketzeko helburuarekin - deituriko kontsumo igo egin dela. Kontsumo hauek oso arriskutsuak dira nerabezaroan memorian eta ikasteko gaitasunean eragin zuzena izan dezakeelako.

Inkestarekin jarraituz, badago datu bat bereziki kezkatzen gaituena; emakumezkoen kontsumoak. Nesken kontsumoak eta mutikoenak ikusita, parekatu egin dira baina ez hori bakarrik, kannabisaren kontsumoaren kasuan igo ere egin da.

Lasaigarrien kasuan, igo egin da kontsumoa bai nesken eta mutilen artean, baina bereziki nesketan. Hau ere kezagarria da, kontuan izanda, gainera, kontrol gabeko kontsumoak direla eta "etxeko botikinetik" lortzen dire-

la, medikuen kontrolatik kanpo. Kontsumo hauek, gaur egun, nerabeek jasaten duten estresarekin lotuta egongo litzateke.

Baina noiz ematen dira kontsumo hauek? Inkestak dioenez ordu txikietan bereziki, gaztetxoak baimena baitute berandu arte kalean egoteko. Eta honek beste galdera batera eramaten gaitu: nola ordaintzen du gaztetxo batek alkohol kantidad hori?

Tartetxo bat utzi beharko dugu gogoratzeko, nahiz eta gurasoek seme alaben kontsumoetan ardurazuzena ez ezin, badutela, ordea, ordutegia adosterakoan, dirua ematerakoan eta etxean arau argiak jartzeko orduan. Jakin baitakigu, etxean prebentzioa egiteko modu bakarra heziketa delako.

Prebentzio Programak

gutunak

Euskal hedabideak, zenbaki bat baino gehiago

Alberto Barandiaran,
Hekimeneko zuzendaria

Iristea eskatzen zaie euskal hedabideei. Zabalitzen dituzten edukiek izan ditzatela kontsumitzaileak. Normala: hedabideek komunikatu egin behar dute, eta bestaldean hartzaileak ez badago, bozgorailu mutuak dira. Baina iristea ez da norabide bakarreko bidea. Iristea eztabaida eragitea da, mezuei oihartzuna ematea, hiztun komunitatea elikatzea, sareak ehuntzea. Horregatik, bai, zalantzarik gabe: euskal hedabideak iristen dira. Balio soziala hor dute.

Eta Hekimen osatzen duteneus-

kal hedabideetan sinetsita gaudenez administrazioen ahalegina ezinbestekoa dela sendoagoak eta hobeak izateko eta, ondorioz, gehiago eragin eta jende gehiagorengana iristeko, bilera dinamika bultzatu dugu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin, politika eraginkorragoetarako buruz eztabaidatzeko.

Gure dimentsioen eta gure ekarpenaren diagnostikoa egin nahi dugu. Irakurketa adostua egitera iritsiko bagina, diru laguntzez hitz egiteari utzi eta inbertsioez hitz egiten has gitezke. Zenbakiez ez ezik, balioez ere mintza gitezke.

Ezin baitugu kezka ezkatuta. Lan baldintza prekarioetan ari dira euskal kazetariak, eta sektoreak lanak ditu urtea gaintzen duten inbertsio edo sustapen egitasmoetan sartzeko. Politika iraunkorragoak behar ditugu administrazioetan, begirada luzekoak. Horretarako modu bat izan daiteke helburuak eta bideak partekatzea. Lehen urratsa egin dugu.

Guaixe


ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.net
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitate@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Garazi Garzia Mauleon
ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.net

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:
Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

SAKANA

Legegintzaldi berrian gazteriaren aldeko apustu konprometitu eskatu dute

Toki erakundeetako eta Nafarroako Gobernuako gazteria arloko profesionalak 2011n onartutako Gazteria Legearen premiazko araudi garapena eskatu dute, "gazteria politika publikoak eraginkor eta erreal bihurtzeko"

Gazteria arloan Nafarroan hurrengo legegintzaldian landu beharko liritekeen gutxiengoak zehaztu dituzte toki erakundeetako eta Nafarroako Gobernuako gazteria arloko profesionalak. Altsasuko gazteria teknikari Blanki Torresek esan digunez, "aurreko legegintzaldietan gertatu dena ez errepikatzen eta talde politikoen Nafarroako gazteriaren bizi kalitate hobeari alde arduratsua aritzeko deia da". Gaineratu duenez, "krisiak larriki kaltetu duen gazterian inbertitzeko garaia orain dela uste dugu, gure gizar tearen etorkizuna baita".

Torresek gazteria teknikariaren

Nafarroako gazteriaren argazkia

- Nafarren %17,3k 14 eta 30 urte artean dituzte.
- Gazteen arteko langabezia tasa %27koa da eta behin behinekotasuna %54koa.
- Langabe gazteen %53,3k bere etorkizun profesionala atzerrian ikusten dute.
- Unibertsitate ikasketak %38,4k dituzte eta graduondokoak %21,8k.
- Eskola uztea %13,3koa da.
- 30 urtez azpiko gazteen %76,5 gurasoen etxean bizi da, %14,5 euren etxean bizi dira eta %6,5 etxea partekatzen du.

proposamenak aletu dizkigu. "Gazteria politikak kudeatuko dituen Nafarroako Gobernuak, gutxi-



Gaztea taldea Irurtzango gazte txokoan. ARTXIBOA.

nez, krisi aurretik zuen 8 milioi euroko aurrekontua izan beharko luke. Herrialdeko aurrekon-

tuaren %0,7ra handitzen joan beharko litzatekeela uste dugu, hau da, 25,9 milioira". Gaur egun-

go aurrekontua 1,2 milioiokoa da.

Antolakuntzaz

Teknikariak gazteriarena Zuzendaritza Nagusia izatea eskatu dute. "Lidergo funtzioa izan behar du gazteendako intereseko gaietan baita hezkuntza, etxebizitza, enplegu edo osasun arloetan ere. Lidergoa Gazteriaren Behatokiaren informazioan oinarritua egon behar du" zehaztu digu Torresek.

Toki erakundeetako gazteria zerbitzuei dagokionez, gobernuak haiek koordinatuko dituen sare egituratu eta funtzio jakinak dituen sortzea proposatu dute. Baita udal eta mankomunitateetan gazteria zinegotzi karguak sortzeko erreztasunak emateko ere. Torresen arabera, "Gazteria Legea garatzeko gazteria planak eta diagnosiak egiteko laguntza beharrezkoa da. Horrekin batera, teknikariak kontratatuzko, programak garatzeko, ekipamendurako, Informazio Zerbitzuetarako edo gazte egoitzetarako diru-laguntzak berrereskuratzea edo indartzea ere".

>> Altsasu

Neguan 20 baso-sute baino gutxiago

Altsasuko suhiltzaileen parketik 20 baso-sute baino gutxiago itzali dituzte neguan, ilbeltza eta apirila bitartean. Halako esku-hartze gutxi izan duten parkeetako bat izan da Altsasuko. Nafarroan neguko baso-suteen kopurua %30 jaitsi bada ere, kaltetutako hektarea-kopurua %10 igo da joan den urtearekin alderatuta (2014an 329,58, eta 2015ean 361,14).



Suhiltzaileak sutea itzaltzen. ARTXIBOA.

SAKANA

Gobernuaren deialdiak ez ditu Urbasako saroiko hildakoen identifikazioak hartzen

Nafarroako Gobernuak berriki jakinarazi zuen 25.000 euro bideratuko zituela 1936ko estatu kolpearen ondoren hildakoen gorpuak hobietatik ateratzeko. 2015erako deialdia da Nafarroako Gobernuak egin duena. Beraz, gobernuak Urbasako saroian hildakoak lezetik ateratzea eta haien DNAren bidezko identifikazioa ez du diruz lagunduko, lezetik 2013an atera zituztelako. Horregatik, kezu azaldu dira eraildakoen senideak.

Urbasako saroiko lezetik 10 gizonen hezurdurak atera zituzten. Haien DNA bidezko identifikazioak 10.500 euroko kostua izan zuen. Faktura hori ordaintzeko Artola, Garcia Albisu eta Urkizuren senideen artean 1.500 euro jarri dituz-



Ikerketaren xehetasunak jaso zituzten senideek. UTZITAKOIA.

te. Etxarri Aranzako, Altsasuko eta Olatzagutiko udalek 1.500 eurona

ekarpena egin dute eta Eulate, Aranaratxe, Larraona eta Behe

Ameskoak 1.125 eurona.

Topaketa

Altsasuko jatetxe batean saroiko lezean eraildakoen bost familia elkartziren maiatzaren lehenean. Clemente Araña, Narciso Artola, Paulo Garziandia, Balbino Garcia de Albizu eta Antonio Maizaren ondorengoak elkartziren. Andres Gonzalezen senideak ezin izan zuten hitzorduan izan. Bai, ordea, ustez Otsoportillon hildako Victor Urkijoren ondorengoak. Balbino Garcia de Albizuk eta Amaia Urkijok ikerketaren berri luze eta zabal eman zieten. Bileran familia horien euren senideen hezurdurak Urbasako saroiko lezean uzteko nahia berretsi zen.

Auto aseguroak

Batzuek promes egiten dute, guk bete egiten dugu

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU

Informa zaituz
948 563 354



MAPFRE
Tu aseguradora global de confianza

Arbizu
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 · ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

SAKANA

3MBk errausketaren aldeko alderdiei botorik ez emateko dei egin du

3Mugak Batera (3MB) plataformak hondakinak erraustearen aldeko alderdiei (UPN, PSN eta PP) boto bakar bat ez emateko eskatu du. Hala, porlandegietan erraustearen aurkako estatuko plataformen VI. topaketan adostutakoa bere egiten du 3MBk. Topaketa hartan zementu-fabrikei haien instalazio-

etan erraustu ahal izateko hondakin kudeatzaile izateko emandako baimenak bertan behera uzteko eskaera egin zuten ere.

Plataformatik gogora ekarri dute Bartzelonako Ikerkuntza Biomedikoen Institutuko irakasle Ingurumen Neurotoxikologia taldeko buru Eduard Rodriguez

Farrek esandakoa: “baditugu nahikoa datu instalazio hauen inguruan bizi diren herritarren gan zerbait minbizi mota ugartziz direla, eta asaldura hormonaletan eta endokrinoetan eta fetu-prozesuan funtzio kognitiboan burmuineko garapenean eragina izateko arrisku handia-



Parodiaren ondoren errausketaren kontrako kontzentrazioa egin zuten.

goa dutela frogatzeko”. Carlos III.a Unibertsitateko ikerketak zementu-fabrikeen inguruan minbiziaren eraginez heriotza-tasa

handitzen dela diotenak zorroztzak eta serioak direla esan zuten, zementugileek erabiltzen dituzten “lan mertzenarioak” ez bezala.

» Olatzagutia

Iheslari politikoak herritar libre gisa bizitzeko eskubidea aldarrikatu dute

Gogoz kontra inor bere herritik urrun bizitzera behartuta izan ez dadila, “are gutxiago arrazoi politikoengatik”. Horixe eskatu zuten Olatzagutian 300 bat pertsonak, Hilario Urbizu San Romanen atxiloketa salatze eta hura aske uzteko egindako manifestazioan

Frantziako eta Espainiako estatuei gatazkaren ondorioen konponbidean pausoak emateko borondaterik ez izatea leporatu zieten. Ziurtatu zuten, “herriaren eta nazioartean babespean emanen dira pausoak”. Gaineratu zuten, “egun, geroz eta gutxiago dira Euskal Herrian eta nazioartean Estatuaren jarrera errepresibo ankerra ulertu eta



Makina bat sakandarrek Hilario Urbizu San Romanen askatasuna aldarrikatu zuten.

konpartitzen dutenak, eta horren aurrean konponbideari ekin beharrean, erasoan tenkatu nahi dute bere buruak Estatuak”. Horren arrazoia “denbora irabaztea eta herritarren artean ezintasun sententzia zabaltzea” litza-teke.

Urbizuren osasun arazo larriek tratamendu zorrotza eskatzen diotela eta hura bermatzeko etxean egon beharko lukeela adierazi zuten. “Bai Mexikon bai Euskal Herriko horretarako lanean ari gara, baita estradizio eskaera atzera botatzeko ere”. Gaiarekin sentiberatasuna duten Sakanako alderdi, sindikatu, elkarte eta bestelakoekin elkartzeko asmoa iragarri zuten. Olatzagutian Urbizurekin sortu den babes eta elkartasun sarea Sakana guztira zabaltzea da asmoa, babes dinamika indartsuagoa sortzeko.

SAKANA

Sakandarrak Gasteizko herri harresian

Ertzaintzak bortizki atxilotu zituen Segiko kide egotzita zigortutako gazteak

Espainiako Auzitegi Nazionalak epaitutako 28 euskal gazteak aske behar zutela eta haietako zazpiren kontrako zigorra salatze manifestazioa egin zen Gasteizen igande eguerdian. Haren ondoren, zigortuak baina atxilotuak izan ez ziren hiru gazteak babesteko Gasteizko Andra Mari Zuriaren pla-

zan Aske Gunea eratu zuten.

Zigortutako hiru gazteak atxilotzea astelehen goizean joan zen Ertzaintza eta indarrez atxilotu zituen, herri harresia osatu zutenen kontra gogor joz. Hainbat sakandar ziren tartean. Atxilotutako ena auzi berean absolbitua izan zen Imanol Salinas olaztiarrak, esaterako, jipioa jaso zuen. 60 bat lagun zauritu ziren.

Han izan ziren altsasuarrek



Gasteizko Aske Gunearen ikuspegia.

Hitzondo agerkari digitalari azaldu diotenez, “izugarriko bortizkeria” erabili zuten ertzainek; “gure kideei eusten ari ginela esku eta besoetan borrakada ugari jasogenuen, gutako batek buruan. Ubel-dura ugari ditugu”. Haietako bat besoa tolestu ezin zuelako osasun zerbitzuek hartatu zutela gaineratu dute. Zehaztu dutenez, hasieran pinturagoitik behera bota zuten gazteen artean hiru sakandar zeuden.

» Etxarri Aranatz / Urdiain / Altsasu

Defentsak herriko tabernen epaia bertan behera uzteko eskatu du

Joan den udan Espainiako Auzitegi Nazionalak herriko tabernen sumarioan auzipetutako 34 euskal herritarretatik 20 zigortu zituen, herriko tabernen bitartez ETA finantzatzea leporatuta. Juan Kruz Aldasorori hiru urteko espetxe zigorra eta sei urteko inhabilitazio zigorra jaso zuen eta

Jaione Intxaurregarri urtebete eta hiru hilabeteko espetxe zigorra eta 4 urteko inhabilitazioa ezarri zioten.

Zigor horien kontrako helegiteak aztertzeko saioa egin zuten asteartean. Defentsak epaitegiari 20 pertsonen kontrako ebazpena bertan behera uzteko eskatu zion.

Aldi berean, 103 herriko tabernen abokatuek haiek bahitzeko agindua bertan behera uzteko eskatu zuten. Itxi zituzten elkarten artean dago Altsasuko Herria Eginez elkarte. Fiskala eta Terrorismoaren Biktimen Elkarte eta Dignidad y Justicia akusazioak, berriz, kontra agertu ziren.



Auzipetuak izan ziren Aldasoro eta Intxaurregarri. ARTXIBOA

>> Irañeta

Aurten eginen dute ur araztegia

Nilsa enpresa publikoak Irañetako ur beltzen araztegia egiteko lanen deialdia egin du. Lanek 287.938,45 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua dute eta urte erdian lanak despedituak behar dute. Enpresa interesatuek euren eskaintza ostegunera arte aurkeztu dezakete.

Gauegun Irañetako ur beltzak hobi septiko batean jasotzen dira. Hura ibai bazterrean, zubi ondoran dago. Ubeldeak gainezka egiten duenez, urez betetzen da eta hobi septikoaren funtzioa ezin du bete. Nilsako teknikariek hobitik 20 bat metrora aurrekusi dute ur araztegia, hobia baino metro batzuk altuago dagoen lur sail batean. Hobiak ur beltzak jasotzen segituko du eta pompa batek araztegiara eramanen du. Han urak garbitu eta ibaira botako dituzte.

Ur biltegia

Irañetako Udalak aspalditik ur

biltegia berritzeko asmoa du. Herria hornitzeko iturburuak ur emari nahikoa du. Horregatik, Irañeta da Sakanako Mankomunitatearen Ur Zerbitzuan ez dagoen herrietako bat. Baina ur biltegia ez dago egoera onenean eta berritu beharra dago. Urteak daromatza Irañetako Udalak Nafarroako Gobernuari eskaera egiten. Orain arte ezezkia izan da erantzuna, hala ere, berriki premiazko lanen zerrendan sartu du foru administrazioak. Baina dirurik ez duenez, lanak noiz eginen diren ez daki Pedro Beraza alkateak. Udalaren ekonomia bestelakoa balitz bere gain hartu eta gero gobernuari faktura pasatzeko aukera luke. Hori egitea ez du oraingoz aurreikusten.

Berazak, bestalde, jakinarazi digu autobus geltokian konponketak eginen dituztela. "Sarbidetako egurrak usteltzen hasiak dira eta



Irintarrak jolas parkean jolasten. ARTXIBOA

legean irisgarritasuna bermatzeko arranpa bat egitea eskatzen du.

Egurra kendu eta porlanezkoa eginen dugu".

SAKANA

12,4 milioi errepede eta autobien mantenurako

Nafarroako ipar mendebaldeko zati handi baten errepede eta autobien mantenuaz arduratzen da Irurtzunen dagoen errepedeen mantenu zentroa, tartean Sakana-koak. Nafarroako Gobernuak harendako 12.437.184 euro bideratu ditu aurten. Haietatik 6.595.476 euro errepedeetako mantenu lane-tarako izanen dira eta gainontzeko 5.841.708 euroak autobietarako. Irurtzungo zentroaren kudeaketa kontratua aurten despeditzen da. Gobernuak berak jakinarazi duenez, haren kudeaketarako deialdia heldu den hilabetean eginen duela eta uda akaberarako emana izanen dela aurreratu du.



Autobia Bi Ahizpen.

>> Etxarri Aranatz

Udalak enkante bidez bi lote salduko ditu

Etxarri Aranazko Udalak bi baso aprobetxamendu enkante bidez saltzeko iragarpena egin du, 2013ko planekoak dira. Haietako bat Epelen dauden 1.740 zuhaitz dira. Pinu gorria, larizio pinua, izeia eta laritza dira aprobetxamendua osatzen duten zuhaitzak, 1.614 metro kubiko zur eta 403 metro kubiko egur txiki egiten dutenak. Haiengatik 41.560 euro eskatu ditu udalak. Beste aprobetxamenduan Goikolan dago. 3.327 pagoz osatuta, 82 metro kubiko eta 2.267 metro kubiko egur txiki egiten du. 19.776 euro eskatzen du haiengatik udalak. Eskaerak garagarri-laren bostera arte aurkeztu daitezke Etxarriko udaletxean.

>> Etxarri Aranatz

Udalak musika eskolako bi lanposturako deialdia egin du

Ofizial administrari lan posturako deialdia ere egin du

Etxarri Aranazko Udalak musika eskolan betenahidituen lanpostuak gitarra klasiko eta elektriko eta kantu irakasleena da. Lanaldi partzialeko kontratuak izanen dira. Bi irakasleak irailaren batean hasiko dira lanean eta arratsalde zemanen dituzte eskolak. Interesatuek dagoen musika titulua eta euskara titulua izan beharko dute. Azken hori ez badute euskara proba eginez aie. Hautaketa prozesuan interesa dutenek eskaerak garagarri-laren 11rako aurkeztu beharko dituzte Etxarri

Aranazko udaletxean.

Bestalde, lehiaketa oposizio bidez ofizial administrariaren lan postsa sortu nahi du Etxarri Aranazko Udalak, etorkizunean behin-behineko kontratazioak egin ahal izateko. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lanposturako baldintzak betetzen dituztenen zerrenda baliatuko du udalak eta ondoren hautespen probak gainditzen dutenekin eta puntuazioa kontua izanik zerrenda osatuko du udalak. Interesatuek instantzia aurkezteko epea garagarri-laren 4ra arte dute zabalik.

FG 320
GP 160 motorra
Uhal enbragea
1v abiadura
Altuerako eskuleku egokitapena bai
Aldeko eskuleku egokitapena bai
Lanerako zabalera 81cm

~~749€~~
Orain!
695€
BEZ barne

IZY 41 P
GCV 160 Motorra
Eskuzko jarraitzea
Altzairuzko xasisa
Oihalezko poltsa 41 cm-ko mozketza zabalera
Aholkatutako lan azalera 500m²
Estater automatikoa

~~448€~~
Orain
~~448€~~
399€
BEZ barne

Unamuno

ECHO
HONDA
POWER EQUIPMENT

948 562 829 - Faxa: 948 563 002 - Ondarria industrialdea - ALTSASU



Nonerabili

NUEVA IMAGEN

ALTSASU

%10eko deskontua

ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE

ALTSASU

%20ko deskontua (eskaintza berezietan izan ezik).

ML MODA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

MARTXUETA

IRURTZUN

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

MENDILORE

BAKAIKU

30 €ko erosketarengatik, landarea doan, % 5eko deskontua lorontzietan.

LEKU ONA OSTATUA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doan. Bestelako menuetan, %10eko deskontua.

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA

ALTSASU

%5eko deskontua osagarrietan.

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua depilazioetan.

HOSTO GORRI ALTZARIAK

ETXARRI ARANATZ

Dendako produktuetan % 5eko deskontua.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai



>> Uharte Arakil

Autokarabanen zerbitzu gunea prest

Itxesian autokarabanendako 15 tokiak prest daude jada eta gune guztia hesituta dago. Bisitariendako bi mahai eta zenbait aulki ere jarri dira. Gunea mugatzen duten sarreran eta irteeran zureko bi ate jarri dira, eta hainbat landare inguruan. Eta, herrian baina autokarabana gunea adierazten duten hainbat seinale ere jarri dira. Bisitariak Itxesin bertan

turismo guneako informazio panel bat dute.

Guneak bi baliabide eskaintzen dizkie autokarabanetakoei: elektrizitatea hartzeko hartunea eta lotara gelditzeagatik ordaindu beharreko tarifa ordaintzeko beste bat. Elektrizitateko hartunea fitxa batzuen bitartez funtzionatzen du. Fitxa horiek herriko dena eta tabernetan eskuratu behar-

ko dituzte erabiltzaileek. Udallan- gileek zainduko dute bertan gelditzen diren autokarabanek tasa ordaintzen dutela. Visa txartelarekin ordainduko beharko dute gau bateko bigaurengatik ordaindu beharreko tarifa.

Turisten ibilgailuek Itxesi auzoazeharkatu behar dute. Hegoaldeko zatian sareak eta zoladura berritzeko lanak berriki despeditu dira. Tartean, obran aurreikusirik ez zegoen hobekuntza bat egin da, izan ere, futbol zelaiako lubakia oso egoera txarrean zegoen eta berria eraiki da.



Autokarabanendako gunea Itxesia auzoan dago.

>> Altsasu

Udarako eta ikasturte berriko udal eskaintza buzoian

Altsasuko Udalak udarako eta ikasturte berrirako prestatu duen eskaintzaren berri ematen duen esku orria etxeetara banatzen ari da egun hauetan. Izen ematea 012 doako telefonora hots eginenez egin beharko da maiatzaren 25etik 29ra.

Musika eta Dantza Eskolaren, kirol-eskolen, kiroldegiaren, gazteria zerbitzuaren eta ludotekaren eskaintzek altsasuar askoren nahiak eta beharrak asetzen dituzte. Horren jakitun Altsasuko Uda-

lak udarako eta heldu den ikasturterako eskaintza egin du, zenbait berritasun sartuz.

Bazkide egiteko eskaintza

Zelandiko kiroldegiko bazkide egin nahi duenak matrikula dohainik izanen du, garagarrilaren 1etik 21era kidetzen bada. Horretarako aurretik kiroldegiko bazkide den pertsona batekin joan behar du eta azken horri urteko kuotetako bat kenduko diote. Informazioa www.altsasu.net web gunean.



Uretan makina bat jarduera egiteko eskaintza egin du Altsasuko Udalak.

Udako eskaintza

Gazteria

Intxostiapunta gazte guneak ordu- tegia aldatuko du eta garagarrilaren 8tik irailaren 30era arte, astegunetan, 18:00etatik 20:00etara egonendazabalik. Udarabegira, joan den urtean mustuzen Uda Gazte hiri kanpamenduak segida izanen du. 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako hiri-udaleku garilaren 13 eta 24a bitartean egingen da. Bestalde, gazteek batukadailerra izanen dute garileko ostegunetan. Agorriko ostegunetarako gazteendako eskaintza berria izanen da: gaueko pulunpa. Ostegun horietan, 21:00etatik 23:00etara Dantzalekun gazteei zuzendutako ekintzak egingen dira.

Ludoteka

Lehen aldaketa orain arteko programen izenean dago. Aisiz blai izena hartu dute Bateragarria-Dibertigarria eta Udan Euskaraz programek. Hala, ikasturtea bukatu ondorengo asterako Txantxari Ludotekak Aisiaz Blai Ekaina eskaintza egin du. Haurrak ludotekan 8:30etik 13:30era egoteko aukera izanen dute, astegunetan, ordutegi erdiako aukerarekin. Ohikoa den 3 eta 12 urte bitartekoendako Aisiz Blai Uda eskaintza izanen da garileko astegunetan 10:00etatik 13:00etara hurrei makina bat jarduera eskainiko diena. Garilerako hilabete guztirako izen ematea egin beharko da. Baina agorriean hamabostaldi

bakarra aukeratzeko aukera ere badago. Kirolaz Blai Uda programa kiroldegian garatuko da garilean, 9:00etatik 13:00etara. Kirol eskaintzako lehen ordura joan eta gero Aisiz Blai Udarekin bat egiteko aukera ere eskaini du Altsasuko Udalak. Ordainketa errentaren arabera izango da. Udalak aurreikusitako hobariak eskuratzeko haurren gurasoek edo tutoreak 2013ko errenta aitortpena aurkeztu beharko du.

Kirola

Urteroko igeriketa, aqgym eta gaur egungo dantzak ikastaro eskaintzei berriak batu zaizkie uda honetan. Aquadance da haie-

tako bat. Igerileku txikian, uretan, ariketak eta musika batzeandatzatza. Garilean, astero hiru egunez egingen da. Hipopresiboak jarduera astean bi egunetan egingen da. Saio horietan sabelaldea, pelbis-zorua eta gorputz eskema lantzen da presioa baretzen duten ariketak egingez.

Kirol entrenamendua da aurtengoudako beste berritasunetako bat. 15 urtetik gorakoek korrika, bizikleta, igeriketa eta bestelakoekin, oinarrizko gaitasun fisikoak landuko dituzte. Garilean, astean bitan izanen da. Azkenik, 12 eta 16 urte bitartekoei eskainitako kirol praktika saioak izanen dira garilean. Helburua kirol eta kirol jarduera ezberdinak ezagutaraztea da.

Kirol eskolak

Heldu den ikasturterako izen ematea maiatzaren 25etik garagarrilaren 5era bitartean egin beharko da. Haur eta gazteak taekwondo, yoseikan budo, gimnasia erritmikoa, saskibaloia, areto futbola, Futbol 8, zelai futbola, atletismoa, pilota, tenisa, irristaketa eta multi-kirol eskoletan izena emateko aukera izanen dute.

Ikasturte berrirako berritasuna emakumezkoen futbol 8 eskaintza izanen da, 2000 eta 2005 urteen artean jaiotako nesken-dako. Bestalde, gimnasia erritmikoaren eskaintzaren barruan 2006tik aurrera jaiotako neska eta mutikoen taldeari bultzada eman nahi zaio. Astean bi orduz ariko dira eta gimnasia ezagutzera eman eta lantzea izanen saio horien helburua. Ez da lehiaketetara bideratutako jarduera izanen.

Oharrak

Altsasuko Udalak kirol eskolen matrikula familiaren errentaren arabera ordainduko dela jakinarazi du. Bestetik, udaletik gogorazi dute ikastaroetako plazak mugatuak direla eta izen-emate ordena errespetatuko dela parte-hartzaileak hartzerakoan. Bestalde, ikastaroak probatzeko lastailaren 15era arteko epea da. 012ra hots eginenez izen ematea ezabatzeko aukera dago. Egun horretatik aurrera kuota osoa ordaindu beharko da. Kobratzeekin lotutako edozein gaietarako Kirol Zerbitzura jo.

>> Arakil / Irurtzun

Aralarren erromeria

Urtero moduan, igandean hainbat arakildarrek eta irurtzundarrek Aralarko santutegirako bidea hartuko dute. Behin santutegian, 13:00etan Aralarko aingerua gurtuko dute. Gurtzearen ondoren, 13:15ean hasiko da elizkizuna. Meza bukatutakoan izena eman duten 65 bat pertsonendako herri bazkaria izanen da. Bi udalek Aralarrera joateko autobusa antolatu dute.

GANUZA ANAIK
www.cocinasganuza.com

Sukaldeko altzari lantegiak
Bainu gelako altzariak | Horma armairuak | Etxetresna elektrikoak

c.ganuza@cocinasganuza.com

Zumurdineta industrialdea | 948 460 203 | Faxa: 948 460 673 | Etxarri Aranatz

10. URTEURRENA
Bihar, 12:30ean
Hamaiketako
Oparitxo
Argazki erakusketa

Zatozte gurekin ospatzera!

Vizu Nerea Vizuete Fernández
ileapaindegia

948 56 36 35 Zirrincalle 5 ITURMENDI

>> Altsasu

Altsasuko Udalak aurten 6.594.968 euroko aurrekontua onartuko du

Bilduren eta Aralarren aldeko bost botoak eta PSNren, IU-ren, PP-ren eta UPNren kontrako botoak izan zituen. Geroa Baik ez zuen bozketan parte hartu. Alkatearen kalitatezko bozarekin onartu ziren aurrekontuak

Altsasuko Udalak 5.387.628 euroko aurrekontua izanen du. Gainontzeko 1.207.340 euroak Aita Barandiaran adinduen egoitzako, kiroldegia kudeatzen duen Atabo enpresa publikoko eta Udal Musika eta Dantza eskolako martxa ziurtatzeko izanen dira. Alkatetzako taldeak egindako ahalegina nabarmendu zuen, udalaren diru-sarrerak txikitu zirelako (egur loteak ez saltzeagatik eta harrobiaren kanon faltagatik). Urrestarazuren arabera joan den urtekoen ildoari jarraipena ematen dio aurtengoak. Alkateak azaldu zuen aurrekontuak berandu onartu zirela aurreko legegintzaldietako kontrako epaiak jasozirelako. Bestetik, aurrekontuak onartuz udal berriari eguneroko kudeaketa



Altsasuko zinegotziak aurreko bilkura batean bilduta.

errazteko asmoa adierazi zuen.

Altsasuko Udalak aurten inbertsioetarako 32.000 euro bideratuko ditu. Hala ere, alkateak jakinarazi du joan den urteko kontuetan superabita aurreikusten dela eta diru hori ere inbertsioetara bideratuko dela. Dagoeneko zen-

bait inbertsio zehaztuta daude: kirol azpiegiturretan hobekuntzak egiteko 9.000 euro izanen dira; artxiborako altzariak erosteko 7.600 euro aurreikusi ditu udalak; etxegabeen aterperako 3.900 eta Intxostiapuntako ekipamendurako 2.200 euro.

Iritziak

Geroa Baiko Unai Hualdek aurrekontuak hauteskunde kanpaina bete-betean eta korrika onartzeko alkatetzako taldearen tema salatu zuen. Sakanako Mankomunitateari egindako 500.000 euroko diru ekarpenak Altsasuko

aurrekontuak lotzen dituela adierazi zuen. IUko Arturo Carreño Mank-iegindako ekarpena gehiegizkotzat jo zuen. Ikastolari egindako ekarpenaren kontra azaldu zen eta enpleguaren sustapenerako diru-saila falta nabarmendu zuen. Alkateak Mank-erako diru-saila txikitu zela argudiatu zuen. PSNko Juan Migel Perez Hurtadok kontuak erretiratzea eta udalbatza berriak aztertzea proposatu zuen.

Geroa Baik memoria historikoren arloan senideekin hartutako konpromisoa betetzeko 4.000 euroko diru-saila sortzeko emendakina aurkeztu zuen. Udalak aho batez, onartu zuen. Horregatik, Bilduk Urbasako saroiko lezean eraildakoak identifikazio gastuak ordaintzen laguntzeko eskatutako 1.500 euroko emendakina erretiratu zuen. Bestetik, kultur erakundeetara zuzendutako diru-saila 3.300 eurotan handitzeko eskaera onartu zuen udalak.

Aniztasun ikasgaietan, oso ongi

Aniztasunaren Astea hartu zuen Zelandi eskola publikoak pasa den astean. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuko Bego Zestau Baraibarrek esan digunez, "450 ikasleek munduko bazter aniztetako hainbat kontu ezagutzerik izan zuten, bertako jendeak zuzenean erakutsiak".

Ikastetxeak ekimenarekin izandako inplikazioa aipagarritzat jo du Zestauk: "gela bakoitzak, aniztasuna eta elkarbizitzarekin zerikusia duen esaldi bana prestatu baitzuen aniztasunaren astera". Inplikazioaren adibidetzat jarri du ere gurasoek eta irakasleek astean zehar munduko kondairak, mitologia, ospakizunak, hizkuntzak eta jakiak ezagutu eta dastatzeko aukera izan zuten (Maroko, Brasil, Portugal, Erru-

mania, Euskal Herria, Galizia, Madril, Kantabria, Bulgaria, Tunez, Frantzia...)

Zestauk jakinarazi digunez, antolatzaileak, parte-hartzaileak eta zuzendaritza egindako lanarekin "oso-oso pozik" gelditu direla; "elkarrieskerrak emanez eman ziztaion bukaera aste berezi eta aberasgarri honi, eta datorren urterako bidea, asmoa, gogoia eta erronka agerian geratu ziren". Immigrazio Zerbitzutik antolakuntzan ibilitakoei eta parte-hartzaile guztiei eskerrak eman eta zoriondu egin dizkiete.

Ikasleek landutakoak

Bulgariako zorte ona ematen duten eskumuturrekoak, Marokoko henaren zergatia eta moduak, Migrazioen prozesuak, jatorriak eta



Gurasoek ere parte hartu zuten Aniztasun Astea. ZELANDI ESKOLA PUBLIKOA

munduko hara honako mugimenduak; ikasleen izenak hizkuntza ezberdinetan nola den jakitea eta

(euskara, gaztelera, frantsesa, ingelera, bulgariara, araihera, eta txinera) munduko txoko anizteta-

ko gauzen erakusketa (jantziak, jakiak, tea egiteko pote eta ontziak, txokoetako argazkiak...).



Hyundai i20 Berria

Inspirazioari begiak ireki.

Munduari beste begi batzuekin begiratzuz gero, zugandik gertu dago inspiraziorik handiena. Ez zenuen espero eta bapatean bere mailan inoiz ikusitako detailez hornitutako lekua eta espazio ikaragarria aukitzen duzu. Zure begiak ireki eta espero ez zenuena bizi.

i20 Berria 9.550€tik hasita

www.hyundai.es

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



i20 Gama berria: CO₂ (gr/km) Emisioak: 99-155.
Kontsumo mixtoa (l/100km): 3,8-6,7



>> Altsasu

Pintxo Feriaren bigarren itzulia

Xurrut elkarteko sei tabernek pintxo berezi bana eskainiko dute asteburuan

Ohi baino mugimendu gehiago eragin zuen pasa den asteburuan Pintxo Feriak. Alde Zaharreko tabernariak elkartzen dituen

Xurrut elkarteak antolatuta, sei tabernetako sukaldeetan prestatutako gutizia bana dastatzeko aukera izan zen aurreko asteburuan. Galdu zuenak asteburu honetan du aukera. Beti ere, 19:00etatik aukera. Gainera, pin-

txo goxoak dastatzearekin batera zozketetan parte hartuko dute. Xurrutetik Arkangoa, Gautxori, Koxka, Lezea, Xume eta Urtzi tabernetatik pasatu eta miniaturazko gastronomiarekin gozatze-ko gonbita egin dute.



>> Altsasu

Loteriak 600.000 euro utzi ditu

Larunbateko loteria zozketak lehen saria 94.891 zenbakiari eman zion. Zenbaki hori zuten hamar txartel saldu zituzten Zumalakarregi plazako loteria administrazioan. Serie soltea zenez, txartelak zeinek eskuratu zituzten ez dakite.

>> Etxarri Aranatz



Jairo Restrepo Etxarrin izanen da.

Nekazaritza organikoko aditu handi baten hitzaldia

Asteartean, 19:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean hartuko du hitza Jairo Restrepo

Etxarri Aranazko herri baratzak kudeatzen dituen Mandoibai elkarteak baratzeekin lotutako informazio hitzaldiei segida ematen

die asteartean. Atzo Etxarrin Jakoba Errekondo paisajistak bere azken liburua aurkeztu bazuen, hitza hartzen hurrengoa Jairo Restrepo kolonbiarra izanen da. Nekazaritza erregeneratiboaren mundu ordezkariarik ezagunetari-

koa, nekazaritza ekologikoa modu askatzaile batean planteatzen du: burujabetza elikagaiak sortzeko, burujabe bizitza birsortzeko. Antzinako ezagutzak eta egungoak uztartzen ditu modu erakargarri batean.

>> Altsasu

Itsaspeko arkeologoa haritz artean

Robert Grenier Altsasun izan zen atzo. Quebektarra izan zen ondoratutako San Juan baleontzia opatu zuena

Han zer bait bazela bazekiten. Oñatiko agirik kokapenik ez zuten ematen baina kostan euskaldunek balearen koipea urtzeko labeen arrastoak zeuden. 1978ko iraileko astelehen eguerdi hartan Kanadako Red Bayko urak zeropeko tenperatura zuten. Robert Grenier itsaspeko arkeologoa hondarra kendu eta barrika puskek agertu ziren. Eskularrua kendu eta han koipe moduko bat atzeman zuen. Euskaldunek XVI. mendean erakitako San Juan baleontzia aurkitu berri zuen Grenierrek. Hura ikertzen 30 urte eman ditu.

37 urte geroago Grenier Euskal Herrian da. Pasaian Albaola egiten ari den San Juan baleontziaren kopia ikustera eta hitzaldiak ematera etorri da. Atzo Altsasun izan zen, Dantzalekun, hariztiaren interpretazio ibilbidean. Itsaspeko arkeologian aditua denak San Juan baleontziaren modukoak egi-



Albaolako Raul Perez eta Manu Izagirre, Robert Grenier, Garazi Urrestarazu eta Iker Manterola atzo Usolarrainen.

teko euskaldunek nolako baso kudeaketa egiten zuten ezagutu nahi izan zuen, bertatik bertara. Grenierrek aipatu du San Juan baleontzia euskal teknologian berri ematen duela: "ingelesek eus-

kaldunen eraikuntza teknikak kopiatu zituzten".

Grenierrek azaldu zuenez, orduko euskal arrantzaleak hotzarekin nabigatzen eta arrantzatzen zuten. Horretarako hobekien janz-

ten zirenak omen ziren. "Horri esker goizean ateratzen ziren bakailaotara. Besteak eguerdirako. Ordurako euskaldunek itsasontzia beteta zuten". Adituak azaldu zuenez, euskaldunek Ternuarako lehen bidaiarekin itsasontzia amortizatzen zutelara eta gero Sevillan saltzen zituztela. "Horregatik, Kariben opatzen dituzten galeoi gehienak euskal galeoiak dira. San Juan baleontziari esker daki-gu hori".

>> Arbizu

Donbasekin elkartasun eguna

Argi Bidea elkarteak Ukrainiarekin gatazkandagoen Donbaskualdearekin elkartasun eguna antolatuko du. *Gora herri erresistentzia! Donbase-tik ez dira pasako!* lelopean antolatuko egitaraua. Lur Gil kazetariaren Donbasi buruzko hitzaldiarekin hasiko dira ekitaldiak, 18:00etan. 20:30ean elkartasun argazkia egingen dute. 21:00etan bokatajatea izanenda eta, 23:00etan, Alerta Gorriak diskoa aurkezteko kontzertua eskainiko du.

>> Etxarri Aranatz

Haurren eguna ate joka

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak antolatuta, bihar Haurren Eguna ospatuko da. 11:00etarako jarri diete hitzordua txikienei, haiendako propio jokoak izanzen baitira. Jokoen ondoren, 12:30ean Bordetxe abere zirkoa izanen dute txikiak. Arratsaldean, berriz, Andra Mari ikastolak antolatutako bikotekako krosajokatukoda. Lasterraldien ondoren, 18:00etan, Irrien Lagunak-ek Euskararen taupadak ikuskizuna eskainiko dute. Despeditzeko, 20:00etan, haurrendako auzatea izanen da.

Txalaparta

Taberna

948 467 070

Zumalakarregi plaza

ALTSASU

UHARTE ARAKILGO UDAL IGERILEKUETAKO TABERNA ETA JATETXEA ERRENTAN EMATEKO IRAGARKIA

Baldintzen plegua: Uharre Arakilgo udaletxean dago interesdunen eskura, eta kontratazio-atarian ere bai.

Proposamenak aurkezteko tokia eta epea: Uharre Arakilgo udaletxean, 2015eko maiatzaren 29ko 14:00ak baino lehen.

Uharre Arakilen, 2015eko maiatzaren 13an.

Javier Rodríguez Astiz, Alkate Presidentea.

UHARTE ARAKILGO UDALA

PPSOE,

ETB

digitala

Nafarroan orain!

Berria erosi taldea

Zuzendaria

Quebectarra Unescoren urpeko arkeologiako nazioarteko zientzia batzordeko lehendakariak izan zen hamar urtez. 1979tik 2010era bitartean Parcs Canada urpeko arkeologia taldea zuzendu zuen.

SAKANA



Larraitz Amadoz Lazkano Egunez egun saioan ari da.

Aurkezle lakuntzarrak telebista nafarretan

Abian komunikazio enpresak bizi lizentzia lortu zituen eta bera da Nafar Telebista aireratuko duena. Larunbatean hasi zituen bere emanaldiak Nafar Telebistaren lehen katea, NTB1. Nafarroa gutzirako emanaldiak eskainiko ditu, ele bitan (26. kanala). NTB2 Iruñerriko euskaraz emititzen hasiko da bi aste barru. Irailera-ko telebista "gihar guztiarekin" martxan izatea espero dute. NTB-

tik aurreratu dutenez, Anabel Arraizak astero saio bat gidatuko du. Lakuntzarrak NTBrako euskal eskola publikoaren festaren berri ematen zuen saioa egin zuen igandean.

Xaloea Telebistak Iruñerriko otsailaren 2tik emititzen du (38. kanala). Larraitz Amadoz Lazkano kazetari lakuntzarrak Xaloea Telebistako Egunez egun elkarrizketa saioa aurkezten du.



Mintzakideen txangorako gonbitea

Maiatzaren 30ean, 11:00etan, larunbatean Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserri museo bisitatuko dute. Itsasi euskaltegitik, autotan, 10:00etan abiatuko dira. Joan nahi duenak hona jo: 948 468 258 edo sakana_mintza@aek.org

Sakanako Mintzakide programan ari direnak heldu den asterako plana proposatu dute: garai bateko baserria eta garai bateko bizimoduaz ezagutzea. Sakandar euskaldunei luzatu digute txangora joateko gonbitea: "lagunekin, familiarekin, euskaltegiko lagunekin... Helburua, egun politaz gozatzea, euskaraz". Sakanako mintzakideekin batera Lizarra eta Larraun aldekoak joatera animatu dira dagoeneko.

Programa

Euskara jakin baina hitz egiteko erraztasuna ez duten pertsonak eta euskaraz ederki moldatzen den beste batekin batzen ditu Mintzakideak. Lauzabosteko talde txikitan. Astean ordu batez euskaraz hitz egiteko hitzordua jartzen dute, dela paseatzen, kafea hartzen, mendira buelta egiten... Jakin bai baina aritzen ez diren horiek euskaraz hitz egiteko tre-



Irrtzungo mintzakide taldea. ARTXIBOA

Sakanako eskaintza

Irurtzun:

Ostegunetan, 17:30ean, Iratxo elkarteetan

Ostiralean, 17:10ean, Pikuxar euskal txokoan

Lakuntza:

Astearteetan, 18:15ean, Ogiberri kafetegian

Etxarri Aranatz:

Ostiralean, 15:00etan, estalopean eta geroago Xapaterto tabernan

Altsasu:

Astearteetan, 10:00etan, Akeitan Ostegunetan, 17:00etan, Koxkan

Olatzagutia:

Astearteetan, 15:30ean, kiroldegiko tabernan

betasuna hartzea da helburua. Euskaltegiko ikasleak, euskara galdu eta berreskuratzen ari dire-

nak... horiek ari dira Mintzakide programaren bidez mihia askatzen.

SAKANDARROK

garaile!

EMAN BOTOA

ITXIERA EKITALDIAK

- M-22, LABRIT:

- 20:30 - Kanpaina amaiera

- M-22, ETXARRI

- 22:00 - Afaria Larzabal elkarteetan



Maskoten heziketa eta zaintza

Maskotak etxean izateak hainbat ardura hartzera behartzen gaitu

Animaliak etxean izan aurretik eta bitartean kontuan hartzeko hainbat gomendio eta zerbitzuren berri izango duzu hemen



Amaia eta Mitxel

Arbizu



2009. urtean zabaldu genuen Basajaun. Txakurrendako hotel bat da. Asteburu, opor, aste santu, eguberriak... txakurrak ez dira luzera-

ko etortzen. Jabearekin duen lotura galdu gabe, esperientzia hau traumatikoa ez dadila izan saiatzen gara. Protokolo batzu ezarrita ditugu, hobe moldatu daitezten. Lan-ohituen bitartez, pausoz pauso, egonkortasuna eskuratzea eta orekatua egotea lortzen dugu. Horrek ziurtasuna ematen dio; egoera kontrolpean baldin badu, seguruago sentitzen da, autoestimioa eta konfiantza irabazten du.

Paseoak emateari garrantzi handia ematen diogu, etengabe pasieran egoten dira, kanpoan, atsedena ahaztu gabe noski! Txakur bat datorrenean, ez dago korrekziarik, ezta entrenamendurik ere, besteekin gozatzera eta ongi pasatzera etor dadila. Jabeekin eguneroko komunikatzen gara. Beste egoitzetan lotuta eta bakarrik izate-

ten dituzte eta beste batzuetan txakur guztiak batera lan egiten dute. Guk tarteko zerbait egiten dugu, gurean elkarrekin ateratzen dira paseora. 24 orduko arreta eskaintzen dugu, egoitzan egoten garelako txakurren bat baldin badago, etxetik jaso eta etxera eramaten ditugu.

Txakurren heziketa zerbitzua eskaintzen dugu, jarrerari buruzko asesoreak gara. Etxean bertan adiestramentua eskaintzen dugu, oinarrikoa iruditzen bait zaigu jabeek ere txakurrak hazita izan diren kontestua ezagutzea, jarraipen on bat emate aldera. Gurekin ikasi dutena galdu ez dadin, jabeak ere formatzen ditugu.

- Txakur heziketa.
- Haurrak eta txakurrak.
- Txakurkumeen heziketa.

BASAJAUN TXAKUR EGOITZA

- Jokaera aldaketak.
- Clickerraren bitarteko adiestramentua.
- Trebeziak (laguntza, terapia eta

- antzematea).
- Ikastaroak egoitzan ematen ditugu, bai teoria baita praktika ere, 5 laguneko taldeetan.

Basajaun
Txakur egoitza Arbizu

Zure lagun onena zaintzen dugu

- 14.000 metro karratuko ingurugunea natura bete betean.
- 24 orduko zaintza arloko profesionalen gain.
- Etxetik jaso eta bueltatu dezakegu.

Zure Plaza erreserbatu!!!!

687319593 • 670982405 • Amaia eta Mitxel

Josu eta Josune

Altsasu



Zeintzuk dira zuen helburuak?
Animalien bitartez pertsonaren bizi kalitatea hobetzea. Batetik, haurrentzat zuzendutako **terapiak**, au-

tismoa, Down sindromea, garun paralisia edo diagnostikorik gabeko haurrentzat estimulazioa garatzen dugu. Bestetik, **hezkuntza proiektu**etan **jarduerak** txertatzen ditugu. Batez ere haur hezkuntzan egiten dugu lan, beti profesionalen ardurapean. Azkenik, **ekintzak** dauzkagu, aisialdi ekintzak.

Zer dira laguntzarako txakurrak?
Gizarteratze lana egiten dutenak dira. Laguntza tekniko bat da, autonomia handitzen laguntzen dute. Txakurrek trebezia asko daukate eta kalean zein etxean autonomiaren garapenean aurrerapausu handia eskaintzen dute. Gure lana da zerbitzu txakurrak eskaintzea, ezgaitasun fisikoa duten pertsonen kasuan eta autismoa duten pertsonendako txakurrak, lo egiten laguntzen dute,

kaleko segurtasunean laguntzen du.

Irisgarritasun eta noraezko izatezko txakurren legea onartu da.
Aurten onartu da, denbora bat eman genuen hau lortu nahian eta azkenean Nafarroan legea onartu egin da. Itsuendako txakurrek bezala, berrmatuta daukate sarrera, zineman, garraio publikoan, dendan, erietxeetan... Lege hau dagoelarik orain hau ezagutzera eman nahi dugu. Honekin batera Nafarroan 2014ean laguntzarako lehen txakurra eman genuen eta esan behar dugu haurrei eta familiari bizitza erabat aldatu zaiela.

Ekainaren 13rako eta 14rako zer prestatu duzue?
Bosgarren urtez jarraian, ezgaitasunaren aldeko elkartasun festa

BOCALAN BIAK BAT

antolatu dugu. Proiektu sozialak finantzatzeko bi egun hauek baliatzen ditugu. Altsasuko kaputxi-noetan ospatzen dugu eta jardue-

ra asko egongo dira egunean zehar. Informazioa gure web orrian aurkituko duzue, www.bocalanbiakbat.org-en.

Bocalan
Biak Bat

646 123 768
bocalanbiakbat@gmail.com
www.bocalanbiakbat.org

Mikel Balentziaga

Dorreo



Gure zerbitzuen artean bereziki estimatua **KIROLA ETA AISIA** da. Hainbat aktibitate antolatzen ditugu, guztiak heziketari begira. Agilit-

ya, pertsona eta objetuen bilaketa, trebeziak... gisa honetako jarduerak ematen digute aukera marku bat ezartzeko aisiaren bitartez txakurrak kasu egin dezan eta elkarren arteko harremana sendotzeko. Txakurra guri begira egon behar da, adiestramentuaren helburua eta oinarria hori baita. Gure inguruan edozer egonda ere, autobusa, jendea, pilota, autoa, txakurrak... estimulazio handiaren bitartez txakurra guri begira jartzearen gaitasuna garatzen datza. Aisiaren bitartez primeran lantzen da. Txakurraekin paseatzera eta kirola egitera datorrenik ere badugu. Horretaz gain, hainbat jendek eskatu digute zertxobait aurreratu ahal izatea. Agilitasun urratsa eman dugu eta konpetizioan hasi gara. Taldetxo bat prest dago, kirol hori

ezagutzeko, kirola baita, jakina! Euskal Herri mailan gutxi gara agilitasun praktikatzen dugunok. Txakurraekin ongi pasatzeko aukera paregabea da; era oso egituratuan, obedienciapean, trebezi asko lantzen dira, bidenabar. Tarteka erakustaldiak egiten ditugu. Ikasleak eramatzen ditugu, hastapenetakoak ere, ikastera, erakustera ez garelako inondik inora fenomenoak, etxeko txakur horiek ere nola bihur daitezkeen arreta handiko txakurrak, trebeak, motibatuak... Harremana sendotzea. Pistak bakoitzaren maila eta beharretara moldatuz, txakurra hartu, sartu eta gozatzerat! Bailarara begira, oso garrantzitsua da guretzat ateak zabalik daudela transmititzea, astelehenerik igandera, goizeko 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko

OTSANDA TXAKUR ESKOLA

16:00etatik 20:00etara, sarrera librea dela, jendeak pistetan nahi duena egiteko aukera dagoela. Txakurraekin arlo emozionala da

gehien landu behar dena. Ongi izatea, sozializazioa oso garrantzitsua da ere, baita arlo kognitiboa ere, eta motibazioa ere.



672 403 850
NA-7100 errepidea 2,5km · DORRAO
otsanda@otsanda.com · www.adiestramientootsanda.es

Maria Goikoetxea

Etxarri Aranatz



Urte guztian zehar gure lagun iletsuen parasitoak zaindu behar direla jakina da, baina lehenengo beroak hastean lan hori findu be-

har da. Bizi garen zonalde pribilegiatu honek, hainbeste maite dugun baso eta berdetasunarekin, badakar arazo bat: arkakuso eta kaparrez betetzen direla gure animaliak eguzkia somatzen denean. Oso garrantzitsua da, derrigorrezkoa ez esateagatik, adi egotea eta udaberria hasi bezain laster albaitariarengana jotzea, parasitoei aurrea hartzeko, gure esku dauten hainbat produktu naiz trikimailu erabiltzeko, gure maskotaren ongi izatea ziurtatzeko. Bestalde, oporrak iristear daudela, badaude hainbat gauza kontutan izan behar ditugunak, animaliekin bidaiatzeko naiz katu/txakur egoitzan uzteko: txertoak eguneratuak egon behar dira eta desparasituak egon behar dira. Paperak ere eguneratuak eta

atzerria bidaiatzeko pasaporteak naiz beste ziurtagiri batzuk denborarekin egin behar dira. Garraio ezberdinetan animalia seguru eta legalki bidaiatzeko korreak, arnesak, transportinak... prest izan behar dituzue momentua iritsi baino lehen. Beti ere horberena, albaitariarengana jotzea da, bakoitzaren kasuistika berezia aztertzeko eta behar adina moldaketa egiteko garraio bidean. Gaixotasunei dagokionez, opor lekuaren arabera moldatu beharko ditugu prestakuntzak: penintsulako ia leku guztietan, gure txakurrak "Leishmaniaz" babestu behar ditugu, gero eta zabalduago bait dago gaixotasun parasitario larri eta sendagaitz hau. Eltxo jakin batek, gaixo dagoen txakur bat ziztatu ondoren gurea zizta dezake

URGAIN ALBAITARITZA

eta bere gaitza kutsatu. Badauzkagu gure esku estrategia ezberdinak, baina arriskua sortu aurretik eraman behar dira aurrera,

opor onak pasatzeko eta nahi ez dugun "oparirik" ez ekartzeko. Osasuntsu egon gaitzen, gu eta gure maskotak ere!



948 567 032 · Araña 2 · Etxarri Aranatz

Maite eta Ainara

Altsasu



Zelai albaitaritza klinikan 20 urteko esperientzia dugu eta animalia txikiendako zerbitzua eskaintzen dihardugu.

Zein lan egiten dituzue?
Zerbitzu orokorrak ematen ditugu, txertaketak, medikuntza orokorra, identifikazioak (txipa edo tatuajeak), desparasitazioetan aholkatu eta kasu kasu, analisi klinikoak, trikina analisiak, etb. egiten ditugu.

Kirurgiak eta ospitalizazioak bertan egiten dituzue?
Bai, eta beste batzuetan espezialistengana desbideratzen ditugu. Ospitalizazioak eta ekografia zerbitzuak ere eskeintzen ditugu, eta laister Rx digitalak eta traumatologo baten kontsulta eta kirurgiak eskaintzen saiatuko gara.

Zer gehiago eskaintzen duzue dendan?
Osagarriak orokorrean, ilea zain-

tzeko behar den guztia, lepokoak, arnesak, sokak, txakurraekin korrika egiteko sokak, flexiak, transportinak, oheak, jostailuak, zirak eta berokiak, pentsu ezberdinak, tratamenduetarako dietak, etb. Eta, bestetik, autogarriketarako bainontzi bat kanpoan baita Vending makina bat ere hainbat produktuekin.

Udarako hainbat aholku emango zenituzkete?
Kontuz prozesionariarekin, adi parasitoekin, animalia alergikoekin tratamendua jartzen hasi... Txakurrik belarra gustuko izaten dute, baina leku garbietan jan dezatela, udan putzuetako ura edatearekin batera arazo digestiboak sortzen baitira. Eta, jakina, kontuz bero kolpeekin,

zuen maskotak maiztasunez busti erreketan edota putzuetan. Azkenik, soroetako belarra moztean, kontuz galburuak ez daite-

zela txakurren gorputzean sartu. Uda lasaia eta zoriontsua pasa animaliekin aholku hauek kontuan izanda.



948 563 011 · Zelai 150 · Altsasu

Hauteskundeak

EH Bildu >>

Zalantzarik gabe... herritarrok garaile!

Sakanan bizi, lan, ikasi eta erosi nahi dugu. Herrietatik bailara eraikitzea da hautatu dugun bidea, herriok bakarka ezin duguna indarrak bilduz eginez. Herritarrok oinarri hartuta ezin bestean. Herritarren gehiengoaren behar, iritzi eta nahiak jaso eta parte hartze zuzenaren bidez eraiki nahi dugu Sakana. Gaintzeko nafarrekin batera, oinarritz-

ko eskubideen errespetuan oinarritutako jendartea da, harriz harri jaso nahi duguna: euskaraz bizitzeko eskubidea, gure ikurren errespetua, parekidetasuna, tokian tokiko garapen sozioekonomikoa, ingurumena zaindu, aberastasuna banatu, ezberdinen artean zubiak eraiki... tokian toki herritarrok erabakiz, herritik Udalera eta Parlamenturako ibilbi-

dea eginaz.

Nafarroan erregimen aldaketa daukagu jokoan eta honek zuzenean eragin dio Sakanari bere egitasmoetan eta herritarren bizi baldintzetan. Hasiak gara udal eta Mankomunitatetik lan ezberdinak egiten, baina hobetzeko asko dago eta egiteko ideia berriak bildu ditugu, herri zein bailara mailako programetan. Auzolanez egin nahiko

genituzke, ekarpenak jasoz eta parte hartu nahi duten herritarrek batzorde ezberdinetan egoteko ateak zabalduz, parez pare.

Euskal Herria herrietatik eraikiko da, eraikitzen ari da. Zeregin horretan, denok dugu zer esan, zer egin. Igandean bozkaren bidez jarraituko dugu aldaketa sozial eta politikoari haize ematen. Herritarrok garaile izateko, ametsa egia bihurtzeko, EH BILDUREN bozka da zure aukera. Alkate hobereena, herria!

OHARRA



Sakanako udaletan zerrenda aurkeztu duten alderdi guztiei egin zaie idatzia argitaratzeko eskaintza. Hemen agertzen direnak onartu dute berau.

>> Olatzagutia



UPNk Goikoetxearen etxean egindako pintaketak salatu ditu

Nafarroako presidenteordeak esan duenez, "halako egkntzak errepikatzeaz nekatuta gaude, nahikoa da. Laugarren aldia da"

Lourdes Goikoetxearen etxean Agur UPN! Erregimena kanpora zioten pintaketak agertu dira asteburuan. Haietako salatu ditu UPNk. Goikoetxeari eta haren familiari babesa ematearantz alderdi erregionalistak lehendakari Javier Esparza eta alderdiiko presidente Yolanda Barcina etorri ziren, alderdi hainbat kargu eta hautagaiekin batera. "Nafarroanez askatasuna ezta demokrazia ere errespetatzen duen jendea egotea" deitoratu zuen Esparzak. UPNko kideek ezker abertzalearen inguruko erakundeiei egotzi die erasoa.

Geroa Bai >>

Orain bai. Aukeratu benetako aldaketa

Nafarroan une historiko baten atarian gaudela dirudi. Kalean sumatzen da. Azken urteetan UPNren kudeaketa-mota guztiz gainbehera etorri da eta hauteskunde garaian nafartasunaren txapeldunak bezala agertzen direnek zerbitzu publikoak suntsitu eta gure lurralde honen marka ia ezezaguna utzi dute. Hor dago, besteak beste, Nafarroako Aurrez-

ki Kutxaren bukaera edota Osasuna (eta osasun zerbitzua) kolokan. Eta hau guztia, gainera, ustelkeria kiratsaz bustia.

Sakanan, ongi aski badakigu UPNk urte luze hauetan Nafarroan eraman izan duen politika eta kudeaketa. Politika baztertzailera erabat; gure bailara eta bere gizar-tearen gehiengoaren pentsamoldea eta izaeraren aurrean UPNren joko-

era lurralde honetan zigor-politika bat aplikatzea izan da.

Oraingo honetan Geroa Bai hainbat aldiz posible izan ez den aldaketa burutzeko erronka dauka. Heldu da unea. Aldaketa ezin da gehiago luzatu. Nafarroak, eta batez ere Sakanan bezalako lurraldetan bizi garenok, den-denok, zentzuz eta egonarriz jokatu behar dugu aldi honetan.

Horretarako, Geroa Bai koalizioan beharrezko tresnak ditugu: arlo sektorial bakoitzean beste politikamota bat egiteko neurriak dituen programa serioa; neurri horiek aurrera eramateko gai diren pertsonak eta honekin guztiarekin batera gizar-te mailan Gobernu berri baten buru izateko pertsona paregabea: Uxue Barkos.

Horregatik, azkenik, aldaketa posible egitea bermatzen duen botoa Geroa Bai koalizioarena duzu. Aukeratu benetako aldaketa.

Izquierda-Ezkerra >>

Nafarroa, lehentasuna

Igandean hautetsontziak irekiko dira nafarondako funtsezkoak diren hauteskunde batzuetan. Egun, eskuina hainbeste urtez agintean egonda, murrizketasozialak eta aldi berean diru-xahuketa hondagarriak izan ondoren eta gehiengoaren kontrako politikak gauzatu eta gero, posible da aldaketa politikoa. Aldaketa bat jendearengan eta jen-

dearen alde, aldaketa fidagarri eta iraunkor bat, gutxi batzuen pribilegioen aldean egin beharrean, honako lehentasun hauek izanen dituen: langabeziaren, desberdinkeria- ren eta pobrezia-aren kontrako lana egitea eta elkarbizitza eta gehiengo soziala defendatzea. Nafarroan erabakitako aldaketa bat, lurralde honen dako baita.

UPNren gobernuak porrot egin du, baita alderdi-bitasunak ere. Aro soziala heldu da, enplegu, justizia sozial eta aukera-berdintasun gehiago ekarriko duen garaia.

Elkarbizitza plurala posible da, eta Izquierda-Ezkerra da horren erakusgarri. Parlamentuan erakutsi dugu lan egiteko eta adostasunak lortzeko gaitasuna, ideia desberdinak batzen jakin baitugu krisiaren biktimak defendatzeari begira. I-Ek bere koherentzia eta pro-

posamenak jartzen ditu berme gisa, egiten duguna garelako eta esaten duguna egiten dugulako.

Nafarroak aro berri bat zabaldu behar du, pertsonak eta haien arazoak erabateko lehentasun bilakatu, eta, horretarako, ezinbestekoa da ezkerreko gizon-emakumeen protagonismoa eta mobilizazio masiboa. Nafarroan, eman botoa aldaketa plural eta ezkerriaren aukera fidagarriaren alde, eman botoa Izquierda-Ezkerraren alde.

Podemos-Ahal dugu >>

Podemos-Ahal dugu inoiz baino posibleago

Igandekoak ez dira hauteskunde arrunt batzuk izango: aldaketa sakonaren aldeko hauteskundeak izan dira. Garai berri bati ateak eta leihoak irekitzeko garaia. UPN eta PSN beraien besaulkietatik kanporatzeko garaia!

PODEMOS-AHAL DUGU urtebete daramagu beste politika bat egiteko proposamena jorratzen eta jendearen jakaruntzarako tresna den esparru zabal eta anitza era-

tzen. Herritarren partaidetzara irekitako espazio gisa sortutako mugimendua gara eta erabakiak herritarren partaidetza, gardentasuna eta jendearen azken hitza kontuan hartuz adosten ditugu.

Nafarroan aldaketa soziala gidatzeko helburua dugu. Halaber, ustelkeriak puskatutako erakundeenganako konfiantza berreskuratzeko konpromisoa daukagu, elkarbizitza eta integrazioan, pertsoneki-

ko errespetuan eta oinarritzko zerbitzuen horniduran oinarritua (ura, argia, janaria, arropa, berogailua, etxebizitza eta kultura). Hau da, denon artean beste jendarte eredu bat eraiki behar dugu.

Gure aniztasunarekiko eta sinesmenekiko errespetutik elkarrekin bizi gaitzeko eta gure kulturaz eta hizkuntzaz harro egon behar dugu munduan bakarrak direlako. Horregatik, zabaltzen eta defendatzen

dugun proposamena oso argia da: pertsona bakoitzari bere boterea ematea, Gobernuaren ekintzei gardentasuna ematea eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala bermatzea.

"Amets egiteko adorarik ez duenak ez dauka borrokarako indarririk" oihukatu genuen... eta gu, ameslari ausartak izan ginelako, gaur PODEMOS-AHAL DUGU inoiz baino posibleagoa dela erakutsiko dugu.

SAKANA



EH Bilduk bere boto paperak banatzeko auzolanera deitu du

Koaliziotik azaldu dutenez, "gure parlamenturako boto-txartelak etxe guztietara helarazteko oztipoak izaten ari gara"

EH Bildutik salatu dutenez, "Hauteskunde Batzorde ezberdinek boto-txartelak behin betiko onartzeko oztipoak baino ez dituzte jarri eta erabaki horiek banaketa prozesu osoa atzeratu du". Posta bidezko boto-txartelak hainbat tokitan ez direla ailegatzeko gaineratu du koalizioak. "Argi dugu aldaketa Nafarroan abian jartzeko behar beharrezkoak diren bozakekidin nahi dituztela". Hori ekitzeko "EH Bilduren boto-txartelak etxe guztietan egon daitezkeen, auzolana antolatuko dugu. Herriz herri, auzoz auzo, atariz atari eta etxez etxe antolatzen ari gara auzolan hau". Herritarrok nor bere herrian auzolan horretan parte hartzea deitu du koalizioak.

Hauteskundeak

» Urdiain

EH Bilduk parte hartzean sakondu nahi du

Urdiaingo EH Bilduk hurrengo legegintzaldirako dituen erronka eta ildo nagusiak aipatzerakoan udal gardenarena da lehena. Udaletik parte hartzean eta komunikazioan urrats berriak eman nahi dituzte. Batzorde irekiak, auzolanari bultzada eman eta komunikazio iraunkorra mantentzea da aipatu dituztenak. Bestetik, hizkuntza politika eragin korra eragin beharra eta euskaldun izatearen kontzientzia, euskara bizitzeko nahia eta herri gogoia eli-

katu beharra ikustendu EH Bilduk. Urdiainen euskarak duen egoeraren eta erabilaren inguruko hausnarketa bulkatuko dute.

Parte hartzean oinarrituta, koalizioak herriaren neurriko egoikia izanen den hirigintza plana sustatu eta kanpo santuan egin beharreko moldaketak proposatuko ditu. Bestetik udal eraikinen erabilera aztertuko da, herriak dituen beharrak ikusi eta haiek asetzeko, esaterako gazteen toki premia. Bes-

tetako herriko kultura eta festen berreskurapenean zein prestaketa parte hartzailearen aldeko lana eginen dutela esan dute EH Bildutik.

Koalizioak Urdiainerako egin duen programa Sakanakoarekin lotu du; "biak ezinbestekoak baitira gure herri eta eskualdearen koloreak marrazteko. Herriak Sakanaren parte garelako eta herri bakoitzeko proiektuek Sakana indartzen dutelako". Horregatik, Urdiaingo EH Bilduk Sakanako Tokiko Gara-



penari aparteko garrantzia eman dio, "udalerrri indartsuak eta eskualde kohesionatua" lortzeko. Horretarako, tokiko sektoreak indartzea

lehentasunezkoa jotzen dute, Sakanan bizi, lan egin, kontsumitu eta gozatu ahal izatea, bertako baliabideak erabiliz.

» Altsasu

I-Ek herrirako 35 lehentasun zehaztu ditu

Izquierda-Ezkerrako hautagaitzatik altsasuar ezkertiar, errepublikazale eta progresista guztiei dei egin diete aldaketa ekarriko duen proiektuan haiek laguntzeko. Koalizioko kideek ziurtatu dutenez pertsonak dira haien interes nagusia. Jendea entzun eta haien aldeko lana egitea helburu dutela nabarmendu dute.

I-Ek hirigintza, etxebizitza, obrak eta zerbitzuen atalean Altsasurako dozena bat proposamen

egin ditu: zaharberritzeen sustapena, etxebizitza hutsak alokairu sozialera bideratzeko hobariak, jolasparkeak egokitzeko, txakurrendako eremu itxiak, hondakinen errekupezioa eta berrerabilpena, Mank-en lana gainbegiratzea ematen den dirua Altsasun itzulia izateko edo energia xahuketa murriztea. Osasuna, gizarte ongizate eta elkartasun arloko zazpi neurri osatzen dute I-Eren programa. Besteak beste Aita Barandiaran egoi-

tzan medikuak goiz eta arratsalde egotea eta han eguneko zentroa egotea, tutoretzapeko etxebizitza edo jantoki soziala sortzea ere.

Ekonomia garapena bilatzeko zazpi neurri daude koalizioaren programan: udal enplegu poltsa sortu eta txandakako sistema ezarri; administrazio tramiteak arindu enpresa txiki eta kooperatibei laguntzeko; kontsumo taldeak ezartzea edota lehen sektorean ekoizpen ekologikoa bulka-



tzea eta enplegu berdea sortzeko plana garatzea. Gizarte eta kulturaren arloan bederatzi proposamen jaso ditu koalizioa: etxebizitza sozialaren aldeko politikak,

hezkuntza (kalitatezko hezkuntza publikoa, sukaldaritza eskola zabaltzea, emakumeen ahaldunduntzea...), gazte plana, aniztasunerako foroa eta euskara.

»

Goazen Altsasu: guztiaren ardatzean pertsonak eta haien aldeko kudeaketa politikoa

Goazen Altsasuren programa "hautagaitza sustatzen duten pertsonen hausnarketa kolektiboaren, altsasuarren eta elkartearen ekarpenen emaitza da". Horretarako herriaren eta udalaren egungo egoeraren analitika abiatu ziren. Programa hainbat atal izanda ere, haiek guztiak elkarrekin zerikusia dutela nabarmendu dute Goazen Altsasutik.

Herriar erreskatea gauzatzeko

ko gizarte-larrialdi egoeran dauden pertsonen berehalako arreta ematea proposatu dute, baita oinarritzko hornikuntza zerbitzuak bermatzea ere. Altsasuar guztien elikadura bermatzeko erakundearen arteko elkarlana sustatuko dute, besteak beste. Bestalde, erabakiak hartzeko garaian herritarren parte hartzea sustatu nahi du Goazen Altsasuk, gaiak landuz, eztabaidatuz eta udal organoei proposame-

nak eginez. Horri lotutako bederatzi neurri zehaztu ditu: batzarrik, bozketak, udal auditoria, Mank-i ekarpena aztertzea...

Altsasu elkarbizitzarako gune izan dadin udal eraikinen, kaleen eta berdeguneen hobetzearen eta, hondakinen kudeaketaz eta garbitasunaren gaineko proposamenak jaso ditu GAK. Euria egiten duenerako estalpeko gune bat, Zumalakarregi plaza konpontzea



jaso ditu ere. Bestalde, udala altsasuarren ongizatea bermatuko duen lanabes gisa jotzen du Goazen Altsasuk. Horregatik, udal zerbitzuen esternalizazioa ahalik

eta txikiena izateko lan eginen dute, baita beste hainbat neurri gauzatzeko ere. Enpleguaren arloan 11 proposamen egin ditu Goazen Altsasuk.

» Etxarri Aranatz

PP, abertzaletasunaz aparteko aldaketa

Juan Antonio Extremerak hiru urte egin ditu zinegotzi gisa eta denbora tarte horretan jabetu da Etxarrik "aldaketa behar duela, ekonomia eta moral arloan hainbeste kalte egin duen abertzaletasunaz aparte". Errespetuan eta askatasunean oinarritutako politika egin asmo du Extremerak.

Bere proposamenen artean alkate soldatari uko egitea, trafikoko seinaleen egoera errebisatzea eta herriaren premiazko irudi garbitzea "biolentoki kaleez ez jabetzeko eta eraikin publikoak bortizkeriaren apologia egiteko erabil ez dezaten". PPK enpresak sortzeko lur publikoa prezio one-

an eskaintzea proposatu du, beti ere, etxarriarrak kontratatzen badi-tuzte. Merkataritzari bultzada ematea premiazko jotzen du.

Ele bitasunaren alde azaldu da, "inposiziorik gabe eta errespetutik". Atez ateko hondakin bilketa sistema kentzea eta Nafarroako identitate ikurren sinboloei errespetua eskatu du, udaletxea eta errotonda Nafarroa, Espainia eta Europako banderak jartzeko eskatuz. Baita erregearen argazkia pleno gelan ere.



irakurri,
gozatu eta
oparitu

Gozatu Bidaiaz

**LIBURUAK EROSTEKO
30 EUROKO
5 TXEKEREN ZOZKETA**

IRABAZLEAK:

- Marian Lumbreras (Altsasu)
- Amaia Lizarraga (Urdiain)
- Mireia Larraza (Etxarri Aranatz)
- Haizea Urbe (Arbizu)
- Nerea Balda (Irurtzun)

* Txeketak liburutegian jaso ahal izanen dituzue.

» Uharte Arakil

Udalak gela berri bat egingen du eskolan

Uharte Arakilgo Udalak 963.793 euroko aurrekontua onartu du aurtengorako. Kopuru horren %32 ondasun eta zerbitzuen gastuetara bideratuko du Udalak; %26 langileria gastuetara eta, beste horrenbeste, inbertsioetara. Hau da, 255.610 euro izanen ditu udalak hainbat lan egiteko. Bestalde, Nafarroako Enplegu Zerbitzua-ren diru-laguntzaren bitartez, hiru hilabeteko kontratazioak egingen dira igerilekuak martxan jartzeko. Lau gazte kontratatuko dira: 2 sorosle lanak egiteko, eta beste 2 sarrerak kobratzeko eta garbiketarako lanak egiteko.

Hobekuntzak eskolan eta Zerradoan

San Migel eskolan gero eta haur gehiago matrikulatzen dituztela ikusirik, Uharte Arakilgo Udalak ikastetxe publikoan gela berri bat sortzea erabaki du. Ikasturte berri-rako 12 haur matrikulatu dituzte eskolako Haur Hezkuntzan eta eskari horri erantzuteko leku falta dago San Migel ikastetxe publikoan. Hori dela eta, patio zati bat hartuko da bi eraikinen artean lotura berri bat egiteko. Horrela,



Pasabide berriari esker gela berri bat izango du eskolak ikasle berriendako.

orain arte pasabidea izan dena Haur Hezkuntzako gela izanen da. Egokitzapen lan horietarako 40.000 euroko baliatuko ditu udalak. Hezkuntza Departamentuan diru-laguntza eskaera eginga du. Udalaren asmoa da lanak udaberri bukaeran esleitzea eta uztaile-abuztuan obra egitea, ikasturte

berrirako lanak despedituak egon daitezten.

Zerradoa auzoan, bestalde, ez dago espaloirik eta autoak oso azkar pasatzen dira. Uharte Arakilgo Udalak hori kontuan izanik, autoen abiadura mantsotzeko eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko, bost pasa-bide gora-

tu jarriko ditu. Sustapen Departamentuaren baietza jaso du udalak eta, iragarri duenez, aurki jarriko ditu. Haietako hiru egungoak dauden tokian berean jarriko dira. Beste biak, berriz, bata tren geltokiaren parean, eta bestea, Zerradoa akaberan. Zeregin horretarako 5.000 euro aurreikusi ditu udalak.

Artxiboa, gora



Udal artxiboaren digitalizazioari eta eguneratzeari esker, dokumentuak digitalki eskura daude eta ez da beharrezkoa dokumentuak fisikoki bulegoan bertan egotea. Hori dela eta, udalak udaletzeko espazioa berrantolatzearabaki du: ganbaran udal artxiboa jartzeko gela bat egokiko da. Ganboikoan beharrezko lanak egin ondoren, lau lerroko artxibo-armairua jarriko da. Lan horietara 10.000 euro bideratu ditu udalak.

Komunaleko lanak



Ata ibarrean larreak garbitu (54,37 hektareatik 14,27), basoko bidea konpondu eta erabiltzen ez den 1.110 metro itxitura kenduko ditu udalak 10.950 euroko aurrekontua duen partidarekin. Lanak egiteko diru-laguntza eskaera egin dio Ingurumen Departamentuari; hala ere, diru-laguntza jaso ala ez, lanok egingen dira, udalak ezinbestekoak jo dituelako. Haiek baitira herriko larrerik onenak. Bestalde, hegoaldeko dermioko biderik erabili den Auzasobururako bidea konponduko da, kontuan izanik, gainera, hurrengo hiruzpalau urteetan etxeetarako emanen diren egur loteak handik atera beharko direla.

www.uhartearakil.com



Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak herritarrei gerturatzeko asmoz sortu da web orri berria. Interneteko atariari esker udal informazioa eta zerbitzuak herritarren eskura eguneko 24 orduetan jarri nahi izan dira. Web orriaren daude bandoak, ordenantzak, herriko zerbitzuen zerrenda gaika sailkatuta, herriko historia, argazkiak eta beste asko jarri dituzte ikusgai. Zerbitzuen atalean, berriz, hainbat motatako ziurtagiriaren on-line eskaera egin daiteke (katastroa, errolda eta bestelako ziurtagiriak). Atal horren bitartez beste tramite batzuk ere egin daitezke, baita, udal ikastaroetan izena eman ere. Eskualdeko enpresa batekin sortu du Udalak bere web orri berria. Udal web orritik lotura zuzena egin dute bertatik Artzai Egunaren eta, Km Bertikal lasterketaren orrietara eta eskolaren blogera ere.

» Altsasu

Zelaia Nafar Folklorearen Egunean

Doneztebek igandean Nafarroako Folklore Egunaren aurreneko edizioa hartu zuen. Nafar Folklorearen Funtsak egun guztirako egitaraua antolatu zuen. Folklorearen makina bat herri adierazpenekin osatu zuten egitaraua: zanpanzarrak, trikitilariak, erraldoi eta buruhandiak, txistulariak, dantzariak, txalaparta, jota kantariak, akordeoilariak, bertsolariak eta abesbatza. Ekitaldia Enrike Zelaiaren emanaldiak despeditu zuen.

Zelaiak berriki bi omenaldi jaso ditu. Bata iparraldeko akordeoilariak eskaini zioten Azkai-



Nafar Folklorearen Egunean parte hartu zuen Enrike Zelaiak.

Zatoz, Agur

Haize Berriak bandak berriki Enrike Zelaiak omendu zuen. Joseba Salegi zinema zuzendariak saioa grabatu zuen eta orain sarean omenaldiaren unea jarri du: https://youtube/tE9w_TN7UJE

nen. Omenaldian, jakina, denek akordeoia jotzen bukatu zuten. Bestalde, maiatzaren 10ean Mendabian elkartu zen Zainzuriaren Kofradiak eta Enrike Zelaiak oho-rezko kofrade izendatu zuten.

Hauteskundeak

HAUTESKUNDE AGENDA *

Programaren aurkezpena. Maiatzaren 22an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Goazen Altsasu.**

Hautagaitzaren eta talde programaren aurkezpena. Afaria. Maiatzaren 22an, ostiralean, 19:30ean Izurdiagako kontzejuetxean. **Arakilgo Independentek.**

Kanpaina akaberako afaria. Maiatzaren 22an, ostiralean, 22:00etan Etxarri Aranazko Harzabal elkartean. **EH Bildu.**

*Alderdiek eta koalizioek jakinarazitako deialdiak.

» Uharte Arakil

PPko alkategaia: herri honen alde ongi lan egitera etorri naiz

Maria Valez Amok PPren alkate-gaia adierazi du Uhartarrendako "onena" nahi duelako aurkeztu dela. Erronkari "handiari konpromiso, ahaleginarekin eta zerbitzu bokazioarekin" helduko diola adierazi du. Bere proposamenen artean daude: industrialdea piztea; enpleguari bultzada ematea; kale, saneamendu eta argiteria publikoaren hobekuntza; bere egunean egin zen inbertsio handia amortizatzeko udal igerilekuei alternatiba bideragarriak ematea; kultur ondarearen sustapena mantendu eta hobetzea eta zorra berfinantzatzea.

» Olatzagutia

PPk atez atekoarekin bukatuko du

Alderdi popularraren Olatzagutiko alkategaia, Jose Luis Miñesek esan duenez, alkatetza lortuz gero atez ateko hondakin bilketa sistema kenduko luke. "Legegintzaldi honetan salatu dugu sistema horrek gure kaleak zikindu eta osasun arazo larriak sortu ditzakeela. Gainera, kostu handia du eta olaztiarrek egunerokoa eta pribatutasuna zailtzen ditu". Horretaz aparte, popularrak lau urtean behin udal kontuen auditoria egitea eskatu du.

Langabeziaren erruaren zati bat krisiak eta besteak enpresen garapena oztopatzen duen Bilduren udalarena da Miñesendako. PPkoak enpresarietara irteerak seguruago akizitateko haiek konpontzea eta argiteria egokitzea eskatuko dio Nafarroako Gobernuari. Merkataritxikie laguntzeko nahia azaldu du. PPkoak udal bilkura gelan erregearen argazkia, Nafarroa eta Espainiako banderak jarriko ditu, "Nafarroa foral eta espainiarrean sinisten dugulako".

ESKALADA

ESKALADA IKASTAROAREKIN POZIK: Man-ek antolatutako eskalada hastapeneko ikastaroan 8 eta 10 urte bitarteko 6 hurrek

eman zuten izena. Ion Gurutz Lazkoz monitoreaekin Rocopolisen eta Lizarraldeko Pikutxis sektorean murgildu ziren eskaladan.

kirola >>

Atletismoa

XI. Aitzkozar herri krosa ate joka

Maiatzaren 30ean jokatu da, Iturmendin, eta izena ematea zabalik dago www.dantzalekusakana.com web gunean

Aurten Iturmenditik abiatuko da XI. Aitzkozar herri lasterketa. Maiatzaren 30ean izanen da. 17:00etatik aurrera txikien probak jokatu dira eta 18:30ean proba nagusia (8,1 km). Izena ematea zabalik dago, www.dantzalekusakana.com web gunean (helduek 5 euro, hurrek dohainik). Nahi duenak ere ondoko telefonoetara hots egin dezake: 948 562 034 eta 606 398 802.

ZIORDIKO PROBARAKO ERE

Ekainaren 7an jokatu da Ziordiko II. Herri Krosa. Izena ematea zabalik dago www.dantzalekusakana.com web gunean, dohainik. Antolakuntzak Paris 365 jantoki sozialerako jaki bilketa egingen du.

SAKANDARRAK LANTZELUZEN

Igandean 213 korrikalari lehiatu ziren Berriozarko 30. Lantzeluze Krosean (7,8 km). Cristobal Galera izan zen azkarrena (26:48). Sakandarrei dagokienez, Francisco Perez 38.a sailkatu zen (34:05), Kike Aldasoro 58.a (37:19) eta Migel Yerro 64.a (38:11).

Atletismoa

Etxarrin elkarrekin korrika

Andra Mari ikastolak II. Binakako Lasterketa-Naparpellet Saria antolatu du bihar, larunbatean, 16:00etan, Etxarri Aranatzan

Kirolzaletasuna eta elkartasuna bulkatzeko eta Andra Mari ikastola laguntzeko bihar, larunbatean lasterketa antolatu du Andra Mari, arratsaldeko 16:00etatik aurrera: Andra Mari ikastolaren II. Binakako Lasterketa-Naparpellet Saria. Horretarako Etxarri Aranazko Udalaren, DY Aren eta Berriaren laguntza izan dute eta Naparpelleten babesa. Aurreko urtean antolatu zen estreinako aipatu lasterketa eta arrakastatsua izan zen. 105 bikotek eman zuten izena. Aurreko urtean igandearrekin antolatu zuten ekimena, baina aurten larunbatera ekarri dute.

Binaka

Lasterketaren berezitasun nagusia binaka korrika egin behar izango dela da, hau da, haurrak heldu

Izena ematea zabalik



Lasterketa herrikoia eta irekia da, eta nahi duen guztiak parte hartu dezake. Andra Mari bertan aritzera gonbidatu ditu sakandarrak. Izena ematea zabalik dago (4 euro). Etxarriko ikastolan egin behar da. Egunean bertan, larunbatean, udaletxeko estalpean eman daiteke izena. Lasterketa bukaeran auzatea izango da parte-hartzaile guztiendako.

batekin batera egingo du laster. Bere gurasoa, osaba-izeba, lehengusua, bizilaguna, laguna edo dena delakoa izan daiteke.

5 maila

Adin guztien parte-hartzea sustatzeko 5 maila desberdin egongo dira: haur hezkuntza (200m), lehen

hezkuntzako 1.go eta 2. mailak (400 m), lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailak (800 m), lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailak (1200 m), eta azkena, 12 urtetik gorako maila (1280 m). Azken kasu honetan, 12 urtetik aurrerakoetan, haurrak beraien artean elkartu daitezke bikotea egiteko.

Lehenengo lau lasterketak Etxarriko udaletxe aurreko plazan izango dira. Azken ibilbidea, 12 urtetik aurrerakoena, ikastola berrira joan etorria izango da, Utzubar Txikiraino hain zuzen. Izan ere, lasterketa honen helburuetako bat ikastola berria eraikitzen laguntzeko baliabideak bilatzea da. Aurten, gainera, eraikina zutik ikusteko aukera izango da, Andra Mari azken urteetan egindako lanak emaitza izan baitu. "Binakako lasterketa honekin egindako guztia ospatu nahi dugu, urteetako guraso eta lagunen ahalginak eta ametsak gauzatu ikusten ari garela. Utzubar Txikiko ikastola berria. Gainera, egun honetan ere haurren eguna antolatu dute gazteek. Gazteak ere animatzen ditugu lasterketan parte hartzera" adierazi dute Andra Maritik.

Argazki erakusketa

Aurreko urteko Binakako Lasterketan ateratako argazkien erakusketa egingen da udaletxeko estalpean eta aurten ere, parte hartzen duten bikote guztiak argazkia egingo zaie. Gainera, Aitor Zubietak eta Joseba Ezkurdiak sinutako kamisetak zozketatuko dira.

Sokatira

Andra Mari hirugarrena Nafarroako txapelketan

Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketako laugarren eta azken jardunaldia jokatu zen larunbatean Etxarri Aranazko pilotalekuan, giro bikainean. Zehazki, gizonezkoen 300 kiloko bigarren jardunaldia jokatu zuten Beti-Gaztek, Berriozarrek, Amaiur A-k, Amaiur B-k eta Kaskalluetak, emakumezkoen 235 kiloko bigarren jardunaldia Berriozarrek, Txantreak eta Kaskalluetak, eta kadeteen 280 kiloko laugarren jardunaldia 7 taldek: Berriozar A-k, Ultzama A-k, Andra Mari, Araxesek, Iñi-

go Aritzak, Berriozar B-k eta Ultzama B-k. Ondoren, kategoria bakotzeko lehen bi sailkatuen arteko finalak jokatu ziren.

Emaitzak

Gizonezkoen 300 kilotoan Beti Gazte izan zen txapelduna, Amaiurren eta Berriozarren aurrean. Emakumezkoen 235 kilotoan Berriozar izan zen txapelduna, Txantrearen eta Kaskalluetaren aurretik eta kadeteetan Berriozar gailendu zen, Ultzamaren eta Andra Mariren aurretik.



Andra Mari taldea hirugarrena sailkatu zen kadeteetan.

Sega



Mazkiaran eta Mitxelena Altsasun.

Mitxelenak eta Mazkiaranek Euskal Herrikoari ekin diote

Euskal Herriko Segarri Liga hasi da eta bertan lehiatu ditugu Bixente Mitxelena eta Ainhoa Mazkiaran bikote altsasuarra. Asteburuan lehen jardunaldia jokatu zen Azpeitian. Emakumezkoetan 6 partaide izan ziren. Alaitz Imaz izan zen onena (1:43) eta bigarrena Ainhoa Mazkiaran altsasuarra (1:56). Atzetik sailkatu ziren Irati Astondoa, Galarraga, Etxaburua eta Otamendi. Gizonezkoetan 24 segalari lehiatu ziren eta Altsasun bizi den Bixente Mitxelena oartzuarra izan zen txapelduna. Lan bikaina egin zuen (2:56). Bere atzetik Koldo Artzelus sailkatu zen, 16 segundora eta hirugarrena Andoni Urrutia, 21 segundora.

Euskal Herriko Liga despeditzeko beste bi jardunaldi jokatu dira. Ligako segalari onenek agorriean Azpeitian jokatu den Europako Txapelketan aritzeko txartela lortuko dute.

Yoseikan budo

Arakama eta Arnanz Europako onenen artean

Euskal Selektzioarekin Europako Txapelketan parte hartu zuten eta podiumera igo ziren

Asteburuan Europako Yoseikan Budo Txapelketa jokatu da Bratislavan. Yoseikan Budoko Euskal Selektzioarekin Sakanako Txuixoo taldeko bisakandar lehiatu dira, Jon Arakama eta Oihan Arnanz. Lehen aldia zen Euskadiko Selektzioak Europako txapelketan parte hartzen zuela eta euskaldunek sekulako maila erakutsi zuten.

Jon Arakama sude B 65 kilo azpitik 2.a sailkatu zen eta Oihan

Arnanz sude B 70 kilo azpitik 3.a. Hortaz, podiuma zapatu zuten sakandarrek. Euskal selektzioak gainontzeko kideek ere lan bikaina egin zuten. Belen Ihidoy sude B 55 kilo azpitik 2.a izan zen, Gorka Ihidoy sude B 70 kilo azpitik 2.a eta emon 3.a eta Paco Saint Marc sude 80 kilo azpitik 3.a. "Sekulako maila erakutsi zuten, borrokalari, epaile eta irakasle askoren txalopean. Txuixootik borrokalari gehiago aterako dira, ziur. Beraz, entrenatzaera eta aupa Euskal Selektzioa" adierazi dute Txuixoon.



Ezkerretik eskuinera eta goitik behera: Gorka Ihidoy, Jon Arakama, Oihan Arnanz, Belen Ihidoy, Paco Saint Marc, Koxe Perez (Euskal Selektzioako zuzendaria), Hiroo Mochizuki (Yoseikan Budoko sortzailea) eta Mitchi Mochizuki haren semea.

Tiro olinpikoa

Euskadiko txapeldunordea dugu Kali



Kali, ezkerrean.

Euskadiko Foso Unibertsaleko 3. mailan bigarrena sailkatu zen Jose Carlos Jimenez "Kali" altsasuarra

Jose Carlos Jimenez "Kali"-kurte asko daramatza tiro olinpikoan. Modalitate asko daude, baina foso unibertsalean murgildu da eta foso unibertsaleko 3. mailan dabil altsasuarra. Emaizta paregabeekin, gainera.

Maiatzaren 3an Euskadiko foso unibertsaleko txapelketa jokatu zen Amurrion. 47 tiratzaile lehiatu ziren. 3. Mailan lehiatu zen Kali. 50 plateretako tiraldia zen. Zegoen maila handiaren isla, hiru tiratzailek 48 plater erdibitu zituzten: Iñaki Renteriak, Nicasio Morenok eta Kalik. "Berdinketa haus-

teko 25 plater bota behar genituen eta hirurok 24 plater bota genituen, atzera ere berdinduz. Eta berdinketa hausteko "muerte subita" delakoan, tiro batera, Iñaki Renteriak irabazi zuen eta ni bigarrena sailkatu nintzen. Gijoneko Errege Kopa irabaztetik zetorren Nicasio Moreno hirugarrena izan zen. Egun dagoen maila izugarria da baina ni bolada onean nago eta pozik nago egindakoarekin" adierazi digu altsasuarrak.

Maiatzaren 10ean Nafarroako minifosoko kopa jokatu zen, eta Kali 1-2 mailan lehiatu zen. 25 plateretara jokatu zen eta bere kategoriako irabazlea izan zen. Aurretik, apirilean, Arabako minifoso

Kopan aritu zen, 25 plateretara. "6 tiratzailek 24 plater bota genituen, eta berdinketa hausteko tiroetan hirugarrena sailkatu nintzen" gaineratu du.

Espainiako Txapelketa helburu

Bolada onean, sasoiari dago altsasuarra. Asteburuan Espainiako Kopa jokatu zen Valladoliden eta ezinezkoa izan zuen bertan aritzea. "Pena ematen dit bolada oso onean nagoelako, baina aurrekontu handia eskatzen du eta ezinezkoa zait. Babesleak bilatzea zaila da. Agorrilean Espainiako Txapelketa jokatu da eta han egoten saiatuko naiz, ea posiblea den".

Futbola

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

33. JARDUNALDIA

ARDOI 2 - ETXARRI ARANATZ 4
ALTSASU 2 - ITAROA 5
Zizurren jokaturako lehia, lehen zatian Ardoi dominatu zuen. Ardoi aurreratu zen baina Etxarrik berdindu zuen, Javierri esker. Atsedendia baino lehen bigarrena sartu zuen Ardoi. Bigarren zatian Etxarrik hiru gol sartu zituen Gentza, Xabat eta Eduardori esker eta 2 eta 4 irabazita itzuli zen liderra etxera. Altsasun, aldiz, 2 eta 5 gailendu zen Itaroa. Uharteko Iruñekoak berehalako erasoan hasi ziren eta ordu erdirako 0 eta 3 aurreratzea lortu zuten. Atsedendia baino lehen Aitorrek Altsasuko lehen gola sartu zuen. Bigarren zatian Itarok laugarrena sartu zuen eta nahiz eta Aitorrek Altsasurendako bigarrena lortu, ez zen erreakzioa iritsi eta azkenean 2 eta 5 irabazi zuen Itarok.

Sailkapena >>

1. Etxarri Aranatz 77 p
10. Altsasu 42 p

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI ARANATZ - LEZKAIRU
(Larunbatean, 18:00etan, Etxarri)
UNIVERSIDAD DE NAVARRA - ALTSASU
(Igandean, 18:00etan, Iruñean)

Mendi lasterketak

Aritz Munarriz lehen sakandarra Zegama-Aizkorri

Sakandarrak XIV. Zegama-Aizkorri (42 km):

1.	Tadei Pivk	1:51:11
85.	Aritz Munarriz	4:46:31
96.	Juanjo Goikoetxea	4:52:38
125.	Beñat Katarain	5:02:08
184.	Juan Felipe Lizarraga	5:24:49
191.	Alberto Razkin	5:26:52
208.	Joxeja Maiza	5:31:24
329.	Joseba Satrustegi	6:10:54
336.	Joxan Salgado	6:13:56
360.	Julen Arratibel	6:26:21

Etxarriarrak 4 ordu laurden pasako denbora behar izan zuen mendi maratoi ezaguna burutzeko


Igandekoa azken urteetako Zegama-Aizkorri maratoi lehiatuenetakoa izan zen. Proba mitikoak 14 edizio bete zituen eta proba jarraitzera mendizale asko gerturatu ziren Otzaurtera, San Adrianera, Aratze, Aizkorri eta proba burutzen zen txokoetara, tartean sakandarrak. Azken 7 urtetan proba irabazi duen Kilian Jornetek azken unean parte hartzea erabaki zuen, Nepaetik itzuli berritan. Proba hasi eta berehalako Ionut Zinca kokatu zuen aurrean eta probako liderra izan zen tarte handi batean. Baina 20. kilometroan Kilian Jornetek eraso gogorra jo zuen eta Manuel Merillas, Tadei Pivk, Pere Rullan eta Aritz Egea bere atzetik atera ziren. Andraitzen Jorneten eraso guztiz kontrolatu zuten bere arerioek, eta ihese gindakoen artean hasi zen borroka estua. 30. kilometrotik aurrera Jornetek urdail-hesteetako arazoak izan zituen eta ezin izan zuen garaipenagatik borrokatu. Hala ere, erretiratu ordez beste behin ere handi dela erakutsi zuen katalanak, proba despiditu baitzuen, 23. postuan (4:19:20). Bestalde, probari dagokionez, bukaeran, jaitsiera gogorrean, Tadei Pivk ita-

liarrak lehia estua izan zuen Manuel Merillasekin eta Pere Rullanekin, azken unera arte erabaki ez zena. Azkenean, italiarra gailendu zen (3:51:11). 36 segundora sartu zen Manuel Merillas leondarra eta 57 segundora Pere Rullan bartzelonarra. Emakumezkoetan Azahara Garcia izan zen txapelduna (4:41:23), sekulako sorpresa eman zuen 20 urteko Paula Cabrerizo madrildararren (4:43:44) eta Oihana Kortazarren (4:44:57) aurretik.

Sakandarrei dagokienez, 9 iritsi ziren helmugara. Aritz Munarriz izan zen azkarrena, proba 85. postuan despidituz (4:46:31). Juanjo Goikoetxea uhartearrak erlan bikaina egin zuen (96.a, 4:52:38). Gainonteko sakandarrek 5 ordu baino gehiago behar izan zituzten proba despiditzeko. Bestalde, Angel Arrieta erretiratu egin behar izan zen.

Kepa Paniagua Junior Traillean Zegama-Aizkorri maratoiarekin batera Junior Trail proba jokatu zen (10,4 km), 16 eta 18 urte artekoendako. 46 korrikalarik osatu zuten proba eta Jan Margari gailendu zen (45:08). Kepa Paniagua urdiaindarra 40.a sailkatu zen 1:03:20).

Rubio eta Jimenez bikain Kilometro Bertikalean Ostiralarratsaldean Zegama-Aizkorri Kilometro Bertikala burutu zen. 165 mendi korrikalarik osatu zuten Zegamatik Aitzurira igotzeko proba (3,2 km, 1.015 metroko desnibela). Josep Viñas izan zen azkarrena (34:27). Bi sakandar aritu ziren. Mikel Rubio irurtzundarra 17. postuan sailkatu zen (39:16) eta Fidel Jimenez etxarriarra 34.a (41:37).



Aritz Munarriz.




Beñat Katarain.



Joseba Satrustegi helmugan.



Arratibeli txapela jarri zioten.



David Oroz Goizutrailen aritu zen.

Francisco Codon laugarrena Iratin

Iratiako maratoi erdia (21,2 km)

1.	Celestino Aranguren	1:52:52
4.	Francisco Codon	1:58:50
11.	Juanjo Armendariz	2:07:14
30.	Xabier Zabalza	2:23:36
125.	Juan Carlos Cano	2:54:45
128.	Jon Perez de Villarreal	2:55:58

Igandean Iratiako maratoi erdia jokatu zen (21,2 km eta 987 m). 161 korrikalariren artean Celestino Aranguren (1:52:52) eta Maria Irigoien (2:31:16) izan ziren azkarrenak. Francisco Codon irurtzundarra laugarrena sailkatu zen (1:58:50) eta Juanjo Armendariz irintarra hamaiagarrena (2:07:14). Gainontzeko sakandarrek ere lan polita egin zuten.

JULEN PANIAGUA HAMAIGARRENA KONTRABANDISTETAN

Larunbatean Kontrabandisten Lasterketa jokatu zen Urdazubi-Urdaxen (15 km). Mikel Beunza (1:09:55) eta Sara Peña (1:23:43) izan ziren azkarrenak. Tartean, Julen Paniagua urdiaindarra 11.a sailkatu zen (1:17:46) eta Juan Pedro Ariz bakai-kuarra 46.a (1:33:58).

OROZ II. GOIZUTRAILEN

Larunbatean II. Goizutrail mendi lasterketa jokatu zen. Bi aukera zeuden: 25 km-ko proba eta 10 km-koa. Proba luzean Endika Gartzia (2:11:51) eta Laida Elizegi (2:54:00) nagusitu ziren. David Oroz 89.a sailkatu zen (3:12:46).



Hitzaldia iragartzeko kartela.

Mendi lasterketak nola prestatu azalduko du Jokin Lizeagak

Gaur, ostiralean, 19:00etan, Etxarri Aranazko liburutegian

Etxarri Aranazko Udaberri elkarteak Mendira Joan Etorria antolatzen du urtero, lastailan, Etxarriko feriek batera. Urbasako bargaraino iristen den lasterketa hau bi herritarren arteko apustutik sortu zen eta aurtengo edizioa betekoa da. Euskal Herriko mendi lasterketarik zaharrena delako Udaberri, eta urteurren berezi honen harira ekitaldi bereziak prestatu ditu, Etxarriko Udalaren, Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioaren, Baltistan Fundazioaren eta Bierrik fundazioaren laguntzarekin. Lehenengo agur gauzatuko da, ostiralean, 19:00etan Jokin Lizeaga mendi korrikalariek hitzaldia eskainiko du Etxarri Aranazko liburutegian "pausuz pausu, mendiz mendi, helmugaraino" lelopean, mendi lasterketen prestakuntzaz aritzeko. Izan ere, mendi lasterketen gero eta zailago diren gurean. Sakana Bizirik taldean, esaterako, multzo polit bat bildu da, Dantzaleku-Sakana, Aralar Mendi, Zabalarte eta Sakana beste hainbat klubetan bezala. Jokin Lizeaga (Urdax) Euskal Selektzioko mendi korrikalaria da. 2014an Zegama Aizkorriko historian korrikalari euskaldun batek inoiz egindako denborarik onena egin zuen (3:59:11). Aurtengoan ezin da aritu, lesio bat tarteko.

Txirrindularitza

Aramendiatarrak bikain: Maialenek Euskaldun Torneoko lidergoari eusten dio eta Enekok Zangozan irabazi zuen

Gipuzkoako Emakumeen Itzuliko kadeteen erlojupekoa irabazteaz aparte, maiatzaren 9an Galizian irabazitako Maringo probari esker Espainiako Kopako kadeteen lider da

Maialen Aramendia txirrindularia ez da geratzen. CAF Transport Engineering taldean dabilen iturmendierra denboraldi bikaina josten dabil. Apirilaren akaberan Bizkaiko loreak Txallengean etapa bat irabazteaz aparte, Bizkaiko loreak Txallengea irabaztea eta Emakumeen Euskaldun Torneoko kadete mailan lider jartzea lortu zuen.

Bestalde, maiatzaren 9an Emakumeen Espainiako Kopako puntuagarria zen lasterketa jokatu zuen Marinen, Galizian. Lasterketa gogorra zen, azken txanpan bi portu gogorrek. Azkeneko portuan eraso jo eta ihes egin zuen Maialenek, helmugara bakar-bakarrik iritsiz. Lasterketa irabazteaz aparte, Espainiako Kopako kadete mailako lidergoa lortu zuen.



Maialen eta Eneko Aramendia anaia arreba bikain dabilta. ARTXIBOA

Gipuzkoakoan aurretiko erlojupekoa irabazi zuen

Asteburuan Gipuzkoako II. Emakumeen Itzulian lehiatu da Maialena. Ostiralean 2 km-ko erlojupekoa jokatu zuten Bergaran eta Maialen Aramendiak irabazi zuen kadeteetan (2:39), bere taldekide Saioa Gili 5 segundo aterata. Larunbateko lehendabiziko etapa Tolosan jokatu zuten (33 km). CAF Transport Engineering taldeko Aroa Gorostiza gailendu zen (57:52), eta bere taldekide Maialen Aramendia 10.a iritsi zen helmugara, 1:41era. Bigarren eta azken etapa igandean jokatu zen, Zizurkil eta Billabona artean (30 km). Guttraneko Isabel Martinek irabazi zuen etapa (49:42) eta Maialen bosgarrena sartu zen helmugara, 38 segundora, beste lau txirrindularirekin batera. Sailkapen orokorra kontuan hartuz Gipuzkoako II. Emakumeen Itzulian Caf taldeko Aroa Gorostiza izan da garailea kadete mailan (1:51:35) eta bere taldekide Maialen Aramen-

dia bigarrena sailkatu da, 57 segundora. Gainera, Aramendiaren CAF taldea izan da talde onena. Gipuzkoako Emakumeen Euskaldun Torneorako baliagarria zen eta Maialenek jarraitzen du torneoko kadete mailako lider.

Eneko Aramendia garaile Zangozan

Larunbatean junior mailako 25. Zangoza Hiria Sari Nagusia jokatu zen. Quesos Albeniz taldeko Eneko Aramendia iturmendiarrak sekulako ikuskizuna eskaini zuen eta bakar-bakarrik iritsi zen Zangozako helmugara (1:59:09). 11 segundo atera zizkion Beola taldeko Imanol Etxeberriari (1:59:20). Irabia taldeko Gorka Arbizu 12.a sailkatu zen (2:03:25) eta multzo eta denbora berean sartu zen Quesos Albenizeko Asier Etxeberria, 14.a. Bere taldekide Josu Gabirondo 26.a izan zen (2:04:21) eta Aritz Irigoien 43.a (2:05:28). Irabiako Izai Mauleon 46.a iritsi zen helmugara (2:05:46).

Txirrindularitza



Txirrindulariak Sakanako Bizikleta Egunean. ARTXIBOA

Bizikleta festa antolatu dute

Maiatzaren 31n, izanen da, Altsasun. Maiatzaren 26a baino lehen eman behar da izena

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak eta Immigrazio zerbitzuak bizikleta festa antolatu dute Altsasun, maiatzaren 31rako. Ekinena antolatzeko ondoko talde eta entitateen laguntza izan dute: Altsasuko Udala, Barranka Txirrindularitza Taldea, Berri Bikes denda, Muruzabal bizikletak eta Altsasuko, Urdiaingo eta Olaztikoko ikastetxeak, Zelandi, Iñigo Arizta, Jesusen Bihotza, Domingo Bados eta Urdiaingo herri eskola, hain zuzen.

Ibilbidea, herri jolasak eta tailerrak

Altsasuko Iortia plazan burutuko da bizikleta festa, maiatzaren 31n. Eguraldi txarra egiten badu, aldiz, Burunda pilotalekuan. Goizeko

9:30ean 2 orduko bizikleta ibilbide erraza prestatu da. Kaskoa, mendiko bizikleta eta ogitar tekoa eraman beharko dira eta aurretik bizikleta puntuan jartzea eskatzen da. Ondoren, 11:30ean, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailendako ikasleendako herri jolasak antolatu dira. Aldiz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako bizikleta konpontzeko tailerlean parte hartzeko aukera izango dute. Jarraitzeko, 12:30ean jostailuen eta kirol materialaren trukea egiteko aukera izango dute guztiek, eta, bukatzeko, 13:00etan auzatea izanen da eta partaide guztien artean oparia zozketatuko da.

Aurretik izena eman behar da Maiatzaren 26a baino lehen, Mankomunitateko kirol zerbitzuan (948 464 866) edo immigrazio zerbitzuan (648 070 710).

Triatloia

Iñaki Gallego Half Triathlon Iruñeako garailea erreleboetan

Asurabarrenak eta Lakuntzak Half Triathlon Iruñea erdi ironmana bukatzea lortu zuten

Larunbatean jokatuak Half Triathlon Iruñea probak ironman erdi baten distantzia zuen. Aritzalekun 1,9 km igerian egin behar izan zituzten triatletek, gero bizikleta hartu eta Iruñeraino jo, 90 km eginez, eta, bukatzeko, Iruñean 21 km-ko korrikaldia egin. Iztzeko modukoa.

500 triatletek hartu zuten parte eta azkarrenak Gustavo Rodriguez (4:00:59) eta Anna Noguera (4:41:19) izan ziren. Rodriguezek 4:41eko tartea atera zion Raul Amatriaini eta Noguera ia 8 minutukoa Ana Casaresi (4:49:13). Sakana Triatloi Taldeko Isidro Asurabarrenak eta

Mikel Lakuntzak proba osatzea lortu zuten. Asurabarrena 97.a izan zen (4:57:43) eta Lakuntza 198.a (5:18:35). Aldiz, Felix Benjumeak ezin izan zuen proba bukatu.

Aipatzekoa da erreleboen modalitatean Beasaingo Trigoi Taldeko Iñaki Gallego triatleta altsasuarra, Iker Baztarrikak eta Cesar Prietok irabazi zutela (4:20:00).

Maiza Gorlizen

400 triatleta pasa lehiatu ziren IX. Gorliz Badia Triatloian (750 m igerian, 28,6 km bizikletan eta 5 km korrikan). Daniel Bayón (1:28:48) eta Tamsyn Moana-Veale nagusi ziren (1:36:50). Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza 172.a sailkatu zen (1:51:26).



Iñaki Gallego, Iker Baztarrika eta Cesar Prieto sariarekin. UTZITAKOIA

Txirrindularitza



Arakilgo koloreak soinean

Bizikleta gainean ibiltzeko Arakilgo mailota eta galtzak eginen dituzte

Maialen Huarte Arano

Arakilen ere bizikletan ibiltzeko balarako mailota eta praka izatea bururatu zitzaizen bi inbentario. Mikel Astiz eta Josetxo Ducar bizikletaz ibiltzen dira maiz eta bai bata zein besteak beste herri bateko edo propagandako mailota eta prakak eraman ohi dituzte. Biei bururatu zitzaizen balarako trajea sortzeko ideia eta Udalarekin jarri ziren harremanetan. Gustatu zitzaizen proposamena eta aurrera egin dute. Ideia mailot eta praka bilakatu eta herritarrei eskaini diete. Udako jantzia eta negukoa daude aukeran. Bata aukeratu edo bestea, arruntagoa den jantzia edo kalitatez hobeagoa dena ere erosi daiteke. 50 jantzi inguru eginen dituzte eta hilabete eta erdi barru emanen dizkiete eskaera egin duten guztiei. Udalak beregain hartu du BEZa ordaintzea eta gainerakoa jantzia eskatu dutenek ordainduko dute. Dagoeneko egin dute eskaera baina norbaitek gehiagok nahiko balu, Udalarekin jarri beharko litzateke kontaktuan eta aukera izanen litzateke gehiago eskatzeko.

Frontenisa

Sei bikote Sakanako Emakumeen VIII. Frontenis Txapelketan

Asteburuan hasiko da Sakanako Emakumeen VIII. Frontenis Txapelketa. Sei bikotek eman dute izena eta 2. mailako txapelketa izango da jokatu dena.

1. jardunaldia

Ostirlean, 20:00etan
Ane-Uxue / Irati-Oihane
Arantxa-Esther / Andrea-Izar
Jone-Amair / Leo-Maider

Mendia

Berriainera Otxoa de Olza gogoan

Bihar, larunbatean, 10:00etan
Unanun

Iñaki Otxoa de Olzaren Sakanako lagunak haren oroimenez Berriainera joko dute larunbatean, maiatzaren 23an. Goizeko 10:00etan Unanun jarri dute hitzordua eta 11:00etan Anna-purnan hil zen mendizaleari omenaldi txikia egingo diote, Berriainen dagoen haren aldeko monolitoan.



146 ikasle ariko dira Sakanako orientazio proban

Asteartean jokatu da, 10:00etan, Arbizuko basoan. Altsasuko Institutuko, Aguraingo eta Etxarriko Andra Mari ikastolako 146 ikaslek parte hartuko dute guztira

Arbizuko Zubaat eta Sandindegi inguruek beste behin ikasleendako Sakanako orientazio proba hartuko dute. Sakanako eta Aguraingo ikastetxeek antolatuko dute, Sakanako Mankomunitatearen laguntzarekin. Proba asteartean jokatu da, 10:00etatik aurrera. Altsasuko Institutuko 75 ikaslek, Aguraingo 45 ikaslek eta Etxarriko Andra Mari ikastolako 26 ikaslek parte hartuko dute, 146 ikaslek guztira.

Jarduera DBHko 4. mailako ikasleei zuzendua dago eta Andra Mariren kasuan 3. mailakoek hartuko dute parte. Ondoko helburuak bulkatu nahi dira: basoan segurtasunez ibiltzen ikastea, mapa bat interpretatzen jakitea eta baita iparrorratza erabiltzen ikastea ere. Aldi berean, aisialdian naturak eskaintzen dituen aukerak eta Sakanako naturaguneak ezagutarazi nahi dira eta Sakanako eta gertuko ikastetxeen eta ikasleen arteko harremanak bulkatu nahi dira.

Areto futbola



Racing San Migelek aurturten txapelketak irabazi ditu: liga eta kopa.

Futsalsakana Kopa Racing San Migelendako

Uharteko Arakilgo taldeak dobletea lortu du: liga eta kopa irabaztea

Denboraldi borobila izan da aurtengoa Uharteko Arakilgo Racing San Migelendako. Sakanako taldeak hartzen dituen Futsalsakana txapelketa irabazi zuten uhartearrek, Bunker talde altsasuarrarekin launa berdindu eta gero, penaltietan. Eta, orain, kopa altxatu dute uhartearrek, atzera ere Bunker menpean hartu eta gero.

Zale asko joan ziren kopako finala ikustera. Partida bikaina izan zen. Hasieran Bunker dominatzen hasi zen. Racing San Migel atera iritsi zen behin eta berriz, baina Iñaki atezainak sekulako partida egin zuen eta altsasuarren erasoak gelditu zituen. Racing Bunkerren atera iritsi zen lehen aldian Jose Marik gola sartu zuen eta 1-0 aurreratu zuen Racing. Hala ere, Bunkerrek ez zuen etsi eta

Xabik berdintzea lortu zuten. Baina atsedendia baino lehen uhartearrek bi gol sartu zituzten eta 3 eta 1 irabazten zeudela despeditu zen lehen zatia. Bigarren zatian Bunker behin eta berriz iritsi zen Racingen atera baina baloiak ez zuen sartu nahi. Aldiz, Racingek kontraerasoan arrisku asko sortu zuten eta laugarren gola sartu zuten. Bunkerrek bigarren gola sartu zuen eta Uriz atezain-jokalaririk jarri zuten, partida berdintzen saiatzeko. Baina uhartearren kontra ezin izan zuten eta kopako finala irabazi zuen Racingek, 5 eta 2. Aurturten dobletea lortu izana ederki ospatu zuten uhartearrek.

Bukatu da Futsalsakanako aurtengoa denboraldia. Aurki Irurtzungo areto futboleko 12+12 orduak jokatu dira, eta izena ematea zabalik dago. Informazioa: futsalsakana.es.

Pilota

Irurtzungo Txapelketan final erdiak jokoan

Maiatzaren 24an, igandean, 17:00etan, Irurtzungo pilotalekuan

23. Irurtzungo Pilota Txapelketa azken txanpara iritsi da. Aste honetan final laurdenak jokatu dira, eta pilotariak ikuskizun ederra eskaini dute. Aipatzekoa da

Bakaikoa etxarriarra finalerdietatik kanpo geratu zela. Igandean finalerdien txanda izanen da. Lau bikotetan sakandarrak daude, Ongay, Ezkurdia, Peñas eta Bergera tartean, eta, hortaz, txapela hemen geldituko da.

Futbola

Egiarreta eta Zaldua txapeldun!

Elomendiko Futbol Txapelketako A mailako txapelduna Egiarreta izan da eta B mailakoa Zaldua

Despeditu da Elomendiko Futbol Txapelketako 2014-2015 denboraldia. A multzoa osatzen duten 10 taldeen artean Egiarreta izan da txapelduna (52 puntu) eta Bar Poukas txapeldunordea (41 puntu). Kiroltasun saria Bidezarek jaso du. B multzoko 9 taldeen artean Arakilgo Zalduak irabazi du (38 puntu), Modernillo (37 puntu) taldearen aurretik. Zorionak bi talde sakandarrei!



Goian Egiarreta taldea eta behean Zaldua. Biak garaile Elomendin.



Magna Nafarroa Xotak play-offei agur

Play-offetako final laurdenetako itzulerako partidaren El Pozok 5-3 irabazi zion Magnari

Despeditu da aurtengoa denboraldia Magna Nafarroa Xotarendako. Lehen mailako titulua erabakitzeko play-offetako final laurdenetan agur esan behar izan du talde berdeak, itzulerako partidaren El Pozo Murciaren kontra 5-3 galdu eta gero. Baina burua oso tente dutela. Izan ere, El Pozo Murcia 3 eta 0 aurreratu zen, baina Imanol Arregiren mutilek hiruna berdintzea lortu zuten. Berdiketa hausteko 3 minutuetako bi tarte jokatu behar izan zituzten. Hor talde berdeak ez zuen zortea alde izan eta El Pozok 5-3 hartu zuen menpean Magna.

"IRABAZTEA MEREZI GENUEN"



"Justuena guk irabaztea izango litzateke, baina horrela gertatu da. Azken minutuan penalty argi bat egin ziguten eta arbitroak ez zuen ikusi. Talde handien kantxatan beti gertatzen dira halakoak. Hiruna berdintzea lortu dugu eta zortea bakarrak eman dio garai-pena El Pozori" azaldu zuen bukaeran Imanol Arregi entrenatzaileak. Hala ere, 2014-2015 denboraldiaren kontentuegoteko arrazoia asko du Magnak. Aurrekontu eskasarekin eta etxean sortutako jokalariekin seigarrena sailkatu da ligan, play-off postuetan, inoizko puntuaziorik altuena erekin: 52 puntu.

Irurtzungo final laurdenetako emaitzak:

Ongay-Landiribar **22** / Bakaikoa-Lasa **15**
Ezkurdia-Tabar **22** / Rekalde-Sanchez **4**
Azpiri-Peñas **22** / Loidi-Esnaola **12**
Lansalot-Bergera **22** / Labaka-Sarasa **20**

Finalerdia

Igandean, 17:00etan, Irurtzungen
Ongay-Landiribar / Ezkurdia-Tabar
Lansalot-Bergera / Azpiri-Peñas

Pilota



Olaztiko San Migel XLIV. Pilota Txapelketa: 3. Jardunaldia jokoan

Emaitzak:

2. maila: Ansotegi-Joao **17** / Barban-Zubieta **18**
22 urtez azpikoak: Santxez-Mujika **18** / Gartzia-Kintana **22**
Iturbe-Urrujola **22** / Arrasate-Bikuña **0**
3. maila: Alustiza-Gonzalez **16** / Zubiria-Sergio **18**
Iñaki-Ibon **7** / Mendoza-Mendoza **18**
1. maila: Etxeberria-Etxeberria **0** / Iurgi-Javier **18**
Mikel-Ioritz **18** / Flores-Martinez **7**

Asteburu honetan 8 partida jokatu dira Olaztin

Asteburuan Olaztiko San Migel elkar-teak antolatutako XLIV. Pilota Txapelketa. Asteburu honetan hirugarren jardunaldia dago jokoan.

Asteburuko partidak

Ostirlean, 20:00etan

4 1/2: Etxeberria / Berat
2. maila: Beñat-Pablo / Diaz de Gereñu-Gonzalez
22 urtez azpikoak: Astiz-Alduntzin / Zelaia-Imaz
Lander-Lopez / Murgiondo-Mariekurrena

Larunbatean, 17:00etan

3. maila: Pleito-Ondatz / Salinas-Aritz
Urtzi-Grados / Lauzirika-Irisarri
1. maila: Joseba-Unai / Nogueira-Sueskun
Loban-Arbizu / Etxeberria-Etxeberria



Herrien artekoa: Arbizuk atzera ere berdindu Atarrabiarekin

Emaitzak:

Kimuak: Agirre-Garralda (Atarrabia) **10** - Imaz-Gorrotxategi (Arbizu) **18**
Haurrak: Jubera-Romero (Atarrabia) **3** - Olaetxea-Petriati (Arbizu) **18**
Gazteak: Aiesa-Bidaurreta (Atarrabia) **22** - Nazabal-Goikoetxea (Arbizu) **13**
Seniorrak: Zuñiga-Garatea (Atarrabia) **22** - Arruti-Agirre (Arbizu) **17**

Larunbatean Arbizuk Ultzama izango du arerio, 10:30ean, kiroldegian

Nafarroako Herrien Arteko Pilota Txapelketako 2. jardunaldia jokatu da. 2. mailan Atarrabiaren kontra lehiatu zen Arbizu eta berdinketarekin despeditu zuten lehia bi taldeek. Asteburuan 3. jardunaldia dago jokoan eta Arbizuk Ultzama izango du aurkari, larunbatean, 10:30ean, Arbizuko kiroldegian.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com



Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

GUAIXE KOMUNIKAZIOA
948 564 275
Foru plaza 23-1 Altsasu
argi@guaixe.net



Jose Miguel Olano
V. urteurrena

Beti egonen zara gure bihotzean.

Zure familia

Meza Lakuntzako elizan, maiatzaren 24an, igandean, goizeko 11:00etan.



Silvestre Goikoetxea
Felix Mari Igoa
Madalena Senar
Jesus Mari Larraza

Alfonso Ulayar
Jose Rodriguez
Txomin Etxeberria

Beti gurekin.

58ko kintuek



Jesus Lizarraga Lakuntza
I. urteurrena

Nahiz eta urruti egon, gure bizitzan beti gertu sentitzen zaitugu.

Zure emaztea, seme-alabak eta bilobak

Bere aldeko meza Arbizuko elizan izanen da, maiatzaren 24an, eguerdiko 12:00etan.



Jesus Lizarraga Lakuntza
I. urteurrena

Ez dugu inoiz ahaztuko zure irrifar leuna zu baitzaitugu bihotzeko kuttuna.

Muxu bat aittuna.

Saioa, Iker, Aintzira, Ekhiñe eta Kimetz

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua
zorion@guaixe.net-era
edo hots egin
948 564 275 telefonora

Kontxi Morcillo Larraza

Zure begikotasuna eta alaitasuna gure bihotzean gelditzen zaizkigu.

Zure senideak

Altsasu-Oñati.




GRUPO
Funeraria VASCONGADA
Ehorzketak
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK
Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€. Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO
Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak
ETXEBIZITZAK

SALGAI

Pisua salgai Etxarri Aranatzen. 83m erabilgarriak, oso eguzkitsua eta bista ederrekin, berogailua, berritua... 70.000 €. Tel 654 23 41 02.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Lakuntzako Kale Txiki taberna. alokatzen da. Hots egin 630 62 47 71 telefonora.

Aitziber elkarteko taberna alokatzen da. Uztaileko eta abuztuko festetarako. Esleipena subasta prozedura erabiliz egingo da, edozein bazkidek lehentasunez hartzeko eskubidearekin. Alokairuaren irteeraren prezioa 2.000 €. Interesa duten guztiak,

Aitziber elkartean aurkeztu beharko dute, ekainaren 18an, iluntzeko 20:30ean, eskaintza ekonomikoa sobre itxi batetan sartuta. Informazio gehiago aitziberelkartea@gmail.com helbidearen bitartez.

Urdiaingo igerilekuak errentan hartzeko. Interesatuak euren proposamenak maiatzaren 28a baino lehen bidali beharko dituzte ondoko e-mailera: aitziberelkartea@gmail.com. Interesatu guztiak Aitziber elkartean maiatzaren 28an 20:00etan eginen den bilerara agertu beharko dira.

Lehiaketak

Erromantzatuauren koloreak. Nafarroako ekialdeko eskualdeko pintura lehiaketa antolatuta da. Maiatzaren 25era arte aurkeztu daitezke lanak. Informazioa www.restauranteromanzado.com

Irurtzungo festen kartela. Maiatzaren 29ra

JAIOTZAK

- **Inhar Zabala Beraza**, maiatzaren 12an Irañetan.
- **Mara Cambero Gonzalez**, maiatzaren 13an Urdiainen.
- **Asier Betelu Ormazabal**, maiatzaren 14an Etxarri Aranatzen.

EZKONTZAK

- **Migel Javier Moreno Igoa eta Maddi Aldaz Oraa**, maiatzaren 16an Urdiainen.

HERIOTZAK

- **Eneko Larrañaga Flores eta Laura Erdozia Lopez de Zubiria**, maiatzaren 17an Bakaikun.
- **Maria Asunción Razkin Imaz**, maiatzaren 11n Etxarri Aranatzen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

arte aurkeztu daitezke lanak. Haur maila (14 urte-
ra arte) eta helduen maila daude. Informazio guz-
tia: www.irurtzun.es

Dantza integrala eta kontakt dantza saioak Irurtzunen

II. Euskal Herriko Kontakt Inpro Topaketa hartuko du asteburuan Irurtzunek. Saio guztiak doakoak dira. ehkie.kontakt@gmail.com helbidean izena eman daiteke

Euskal Herriko Kontakt Inpro Elkarteak (EHKIE) antolatuta, dantza integrala eta kontakt dantzarien topagune bihurtuko da Irurtzun hiru egunez. EHKIEren helburua dantza mota hori ezagutzera ematea eta jendeak praktikatzeko da.

Kontakt dantza aspaldi praktikatzen da baina gure inguruan boom moduko bat dago. Halaxe azaldu du asteburuko topaketako antolatzaileetako batek, Oskar Estangak. Dantzan aritua izan behar ote den galdetuta, Estangak azaldu digu bi aldeak daudela. “Zenbat eta gehiago landu azkenean gauza gehiago joaten dira ikasten. Auto-ezagutzari, orekari, grabitate zentroari eta abarri buruzko gero eta tresna gehiago daude. Hori oso interesgarria eta gomendagarria da”.

Bestalde, “bakarrik esplorazio eremu gisa, gela batean sartu jende multzo bat. Halako saio batean “denak balio du”, baldin eta zure burua eta besteak errespetatzen baldin badituzu. Hortik sortzen diren egoerak, emozioak... ikaragarriak dira”. Horrek bakarrik “sekulako balioa” duela esan digu Estangak. Aldi berean, “esploraziorako bide handia” ematen duela eta haren interesa nabarmendu du.

Nolako saioak?

Kontaktua beti presente dago, ez da beti egon behar elkarrekin.



Dantza integrala

Gidatutako saioak dira, non gida batek proposatzen dituen mugimenduzko egoera ezberdinak. Egoera horiekin hainbat gauza landu daitezke: talde harremana, gorputzeko atal zehatz baten mugimendua... Zerbait gidatua eta zehatza da.

Berez, mugimenduak ez dira azkarregiak, entzumena oso garrantzitsua delako. Lehena norbere burua entzutea eta horren arabera mugitzea. Egunaren arabera mantso sentitzen dena oso mantso mugituko da. Edo azkarrago bestetan. “Norbere mugimendutik abiatuta eta ingurua behatuz, edozein gauza sortu daiteke: orekak, jolasak, taldeak, korrika... Inbestigaziorako oso toki polita da”.

Ikastaroak ere badaude eta haientan teknikak irakasten dira; esaterako: azal azpian zer daukagun,

Kontakt dantza

Inprobisazioan oinarritzen da. Praktikatzeko ia ez da deus behar, gorputza eta leku egoki bat. Elkarren kontaktuarekin eta inguruaren kontaktuarekin inprobisazioaren bidez mugimendua bideratzea da. Oso-oso gauza irekia da.

leku ezberdinetatik mugimenduak nola sortu, ahalegin gutxirekin mugitu, oreka motak... “Neretako ikasgai nagusia auto-entzutea da. Nola nago ni, eta ondorioz ingurukoak nola entzuten ditut”.

Beldurrez eta beste

Estangarendako “oso aberasgarria izan da ikustea kontaktuari beldur gehiegi diogula. Halako beldurrak ditugu”. Horiek bigarren edo hirugarren maila batean gelditzen dira eta “emozioak, izaerak, gauza pila bat partekatzen dira”.

Egungo gizartean “abiadura bizian goaz eta, benetan, gauza askoz dugu hausnartuz praktikatzen ere. Gauza batzuetan oso inguru aurreratuan gaude, baina beste batzuetan ez gara jarri. Ez diogu gure buruari benetan aukera eman pentsatzeko. Zer jarrera dut kontaktuarekiko? Nerea da? Edo jaso dut? Gizateriari buruzko galderak egin litezke ere. Halako gauzak horretan jartzeko dira”.

Prestatuak gaudela dio Estangak, baina lanketa egin behar dela. Azken batean gizarte osasuntsuago baten bila joatea dela dio. “Batzuetan iruditzen zait oraindik bekatuaren itzala dugula edo gure buruaren beldurra. Azkenean ez da hainbestera ere. Azkenean da, jende pila bat, umeak bezala jolasten batzuetan, mugitzen, ikeritzen eta ongi pasatzen. Ditugun baliabideekin. Ez da asko behar benetan gustura egoteko. Mundu guztia etortzera gonbidatuta dago”. +www.guaixe.eus

Gozamenezko film laburrak



Gaur, 18:00etan, Altsasuko Intxostia-punta gazte gunean lehiaketako sari banaketa egingen da

Gozamenez programaren barruan, II. film laburren lehiaketa antolatu da, gazte nafarrek sexualitatearen gainean hausnartu eta ideiak adierazteko. Beti ere, ikuspuntu integratzaile, plural eta ireki batetik, erredukzionismoetatik urrun, zentzumeneren bidezko gozamenaren, fantasien alde, pertsonen garapen globalaren bila dauden lanak aurkeztu behar dira.

Nafarroako lehiaketari lotuta, Altsasuko Udala Gazte Zerbitzuak sariketa propioa antolatu du. Bifilm labur aurkeztu dira lehiaketara: *Amor Saludable* eta *Revolución Sexual*. Aurrenekoan bikote erlazio batean osasungarria ez den guztia azalarazten saiatu dira. Bigarrenean erlijioso den familia bateko neska batek bere inozentziatik sexu iraultza bizi du, baina etxeko giroan hori azaltzea zaila zaio.

Gazteek udalaren web orriaren bidez boza emateko aukera izan dute eta gaur argituko da 100 euroko saria norendako izanen den. Bi lanek Nafarroako eta Altsasuko lehiaketan parte hartu dute. Bitartean, gaur izanen den sari banaketara, “emozio eta desirak adierazi eta konpartitzera” joatera animatu dute Gazteria Zerbitzutik.

bazterretik

Aritz Viñas

Gogol Bordello

Kaixo lagunok, gaur Gogol Bordello taldeari buruz hitz egitea gustatuko litzaidake. Talde hau 1999an New York-en sortutako ijito punk taldea da. Hauen ezaugarri esanguratsuenetariko bat kontzertuetan egiten dituzten irteera eta kontzertu teatralak dira, eta aipatzeko beste ezaugarrietako bat haiengan ijito doinuak sumatzea da. Taldearen gehiengoak Europako ekialdeko immigranteak dira, eta taldeak biolin eta akordeoiaren doinuak batzen ditu bere punk

musika egiterakoan. Gainera, disko ezberdinetan ere saxofoi doinuak entzun ditzakegu, kabaret musika ere punk eta dub musika estiloekin nahasten da. National Public Radio irratiaren egindako elkarrizketa batean Eugene Hütz, taldearen abeslari eta burua, Band of Gypsies eta parlamentu-funkadelic aipatu zituen haiengan eragina izan dituzten bandak bezala. Eta Nikolái Gogolek, taldearen izenean agertzen denak, ideologikoki eragina izan zuela dio. Beste eragin batzuk aipatzeagatik hemen agertzen dira Manu Chao,

Fugazi, Kalpakov, Rootsman eta The Clash. Haien lehen single-a 1999an aurkeztu zuten, eta orain arte 8 disko atera dituzte merkatura. Hauetaz aparte single ezberdinak atera dituzte, zuzenean egindako kontzertuen DVD/CD bildumak eta beste taldeei egindako tributuak. 2005ean taldeak Side One Dummy disketxearekin sinatu zuen. *Start Wearing purple* abestiak, Voi-La intruder diskoan agertzen zenak, Erresuma Batuan ezagutzera eman zituen. Abesti hau haien lehen single internazionala dela esan

dezakegu. *Gypsy Punks* diskoarako berriro grabatu zuten. Eta haien *Not a crime* abestia bigarren single bezala aukeratu izan zen. Diskoak ateratzeaz aparte, hainbat proiektu gehiagotan parte hartu dute, esaterako haien *Start wearing purple* abestia 2005eko *Everything is illuminated* pelikularen hainbat eszenatan agertzen da eta kredituetan entzun dezakegu abesti osoa. Gainera Eugene Hütz filmean paper garrantzitsua jokatzen duen. Beste taldeekin ere proiektu ezberdinak dituzte, Balkan Beat Box, tal-

dearen kide batzuekin batera dub eta musika elektronikoa biltzen duten talde bat dauka J.U.F. (Jewish-Ukrainian Freundschaft) izenekoa. 2007an Madonnarekin eszenatokia partekatu zuten Londreseko Live Earth festibalean, elkarrekin *La isla bonita* abestia abestu zutenean. Bukatzeko, 2012an haien *Super taranta* abestiaren zati bat erabili zuten Eurokoparen hasierako emanaldian. Guztiz gomendatzen dudana taldea da hau, soinu ederrak eta alaiak transmititzen dituena.

Hiru kopa txanoen bi unibertsoak

Larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Teatres, Amateur Antzerki Zikloaren bosgarren edizioa Deikazteluko Atarapanta antzerki tailerrak itxiko dut. *Tres sombreros de copa* antzezlan eka- rriko du Altsasura.

Batetik, poetikoaren eta senti- mentalaren eta, bestetik, umorea- ren eta satiraren uztartze zorion- tsuaren bidez Miguel Mihurak komedia horretan bi mundu kon- trajarritzen: burgesa, hipokrita, zurruna eta itxurazko moral zurrun

batek mugatua, eta aurrekoaren errutinarik eta konbentzionaltasu- nik gabea, askea eta bizi-gogoekin, baina engainagarria ere.

Bi mundu horien ordezkariak dira Dionisio eta Paula protagonis- tak. Lehenak ezkondu aurreko gaue- an, hotel batean hartuko du ostatu. Han Paula ezagutuko eta harekin maiteminduko da. Dionisiorendako guztiz ezezaguna zen mundua era- kutsiko dio Paulak, eta Dionisiok zer egin birpentsatu beharko du: ezkon- du ala Paularekin alde egin. Azke- nean, etsita, hoteletik abiatuko da bere ezkontzara. Ezkontza aurreko



ordu horietan zer gertatzen den jakin nahi duenak Iortia kultur gunetik pasa beharko du bihar.

Taldeaz

Brasilera dirua biltzeko Dei- kazteluko hainbat elkartu eta

Sari gehiago

Amateur Antzerki Zikloaren emal- daldi bakoitzaren ondoren ohi duenez, Altsasuko Dendari Elkar- tearen establezimenduan 30 euro gastatzeko txartela eta Xurru- tek, Alde Zaharreko tabernarien elkar- teak emandako ardo boti- lak zozketatu ziren. Migel Garzia unanuarra izan zen saritua.

sosa lortzeko antzezlan pre- sta- tzea otu zitzaion. Hala sortu zen Deikazteluko Atarapanta antzer- ki tailerra. Orduetik ia urtero fes- ten aurretik antzezlan bat eta eguberrietarako obra txikiagoak prestatu ditu. Ibili eta ibili talde- ra gazteak batu dira. Altsasura ekarriko duten muntaia pasa den urtean mustu zuten.



Erkudengo Ama abesbatza Asturiasen

Larunbatean, 20:00etan, Grandako elizan kantatuko du, XIV. Emcore topaketan

Altsasuko abesbatzak bihar musika erregionaleko tal- de koraleko topaketan par- te hartuko du. Grandako abes- batzak, Asturiasko Abesbatzen Fede- razioak eta Xixongo Udalak antolatutako topaketa horretan Erkudengo Ama abesbatzarekin

batera Coral Padre Coll eta Coral del Liceo de Naviako dira.

Altsasutik bost piezako erreper- torioa eramanen dute. Emanal- dia, hala ere, aureskua kantatuz eta dantzatuz hasiko dute. Ondoren, *Mendirik mendi* euskal doi- nua, *Swing low* beltz espirituala, Rasmaninofen *Ave Maria*, Astu- riasko *No llores ne* sehaska kanta eta Andaluziako *Zorongo* abestiak kantatuko dituzte.

Hari laukotea

Asturiastik bueltan Erkudengo Ama abesbatza heldu den hileko emanaldia prestatzen hasiko da buru-belarri. Garagarrilaren 13an, elizan, musika sakroari buruzko monografikoa eskainiko du Altsa- suko abesbatzak, erlijio musikaren barnako ibilbidea eskainiz. Emanal- di horretan Gasteizko Ariadna hari laukotearen laguntza izanen du Erkudengo Ama abesbatzak.

Pintzelak Olatzagutiara

Garagarrilaren 14an, igandean, VIII. Pintura Azkarreko Lehiaketa jokatu- ko da Olatzagutian. Haurren (11 urtera arte), gazteen (12-15 urte artean) eta helduen mailan (16 urtetik gorakoak) banatuko dira parte-hartzaileak.

Parte hartu nahi dutenek izen ematea udaletxean egin deza- kete, astegunetan, 10:00etatik 14:00etara. Telefonoz egin nahi duenak 948 562 446 zenbakira hots egin beharko du edo bestela, kul- tura@olazti.com e-postara idatzi daiteke. Azken kasu horretan VIII. pintura lehiaketarako dela aipa- tu behar da. Haurren mailan ari- tu nahi dutenek garagarrilaren 11ra arte dute epea zabalik. Hel- duek, berriz, lehiaketaren egun berean 9:00ak baino lehen ere izen emateko aukera izanen da.

Sariei dagokionez, haurren mailan arteplastikoetako materia- lez osatutako hiru sari banatuko dira. Gazte mailan 150 €ko balea arteplastikoetako, argazkilaritza- ko edo kirolerako materialean. Sari bera eskuratuko du gazte mailako margolari olaztiar one- nak. Helduen mailan 500 eta 200 €ko bi sari izanen da. Eta herriko pintore onenarendako beste 200 euroko sari bat izanen da.



Aragoiko musika piperminak

Igandean, 19:00etan, Etxarri Aranazko plazan

Aragoiko Pirinioan sortutako taldea da Las Guindillas, etzi Emaplaza kontzertu zikloari segi- da emanen diona. Bluesa, reggae, ska, runba, rocka eta salsa uztartzen dituen musika proposa- mena da haiena. Emakume lauko- te batek abiarazi zuen taldea 2010ean, 2013an zazpita zabaldu zena. Guztiak ere Aragoiko Piri- nioan hustutako herriak berres- kuratzeko bizi proiektuak dituz- te. Hasieran bertsiok egiten zituz- ten, gerora sormenaren bidean sartzeko. *Malabares con la vida* disko laburra aurkeztera etorriko dira Etxarri Aranatzera, "pentsa- tzeraz eta amestera gonbidatzen duten sei pieza" haiek dioenez.

Aliziaren abenturak elkarrekin kontatzera

Ostegunetan, 18:00etan, Olatzagutiko liburutegian Alizia lurralde miragarrian liburuaren irakurketa publikoa

Aurten 150 urte bete dira Lewis Carroll-ek *Alicia lurralde mira- garrian* liburu argitaratu zuela. Urteurrena dela eta Olatzagutiko liburutegian, Eduardo Mayordomok, haren inguruko jarduerak antolatu ditu. Hala, heldu den oste- gunean liburutegian elkartzen diren haur guztien artean *Alice- ren abenturak lurralde miresga- rrian* (1989, Pamiela) liburu irakurriko dute. Irakurle gisa aritzen diren artean, bukaeran, liburu zozketa egingen da.

Ostegunetan Carrol- en liburu- ren bertsiok ezberdinez osatutako erakusketa ikusgai izanen da. Egun horretan bertan despeditu- ko da ipuin lehiaketan lanak aur- kezteko epea. Lehiaketako baldin- tza da ipuineko protagonista Ali- zia izatea eta bere magia- zko mundu miragarri hori Olatza- gutian kokatzea. Azken finean, zer gertatuko litzateke Alicia bat- bate- an iritsiko balitz? Haur, gazte eta helduek aurkeztu ditzakete euren lanak lehiaketara.

Animatika 3D enplegu tailerrekoen film laburraren mustutzea

Gaur, 20:00etan, Irurtzungo kultur etxean

S3DAk, Sakana Animatika 3D Enplegu Tailerrak, sortuta- ko lehen film laburra da *Fri- go Time*. Eskolako ikasleek sortu duten aurreko film laburra da; hasi ideia sortzetik, gidoia idazte- ra eta hari itxura eman arte. Gaur lana ikusteko aukeraz aparte hura garatzeko prozesua erakutsiko du S3DAk. Ikasleek Altsasuko 2D-ko

taldearen laguntza izan dute, hark egin baititu kredituak. Aurkezpe- na gazteleraz izanen da.

Arte Gaztearen 2015eko Topa- ketan lan finalista, lehiaketara aurkeztu ziren gainontzeko lane- kin batera Nafarroako Filmotekan eman zuten, apirilaren 30ean. Kar- telean ageri denez, hozkailu barruan dauden mahatsa batzuk dira protagonistak. S3Dakoek sakandarrak haien aurreko obra ikustera animatu dituzte.



G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
aurten							
euria: 20%	euria: 40%	euria: 50%	euria: 26%	euria: 55%	euria: 50%	euria: 30%	
Min: 6 Max: 11	Min: 7 Max: 12	Min: 8 Max: 14	Min: 9 Max: 13	Min: 8 Max: 12	Min: 6 Max: 14	Min: 7 Max: 14	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	24.5	6	36.8
Etxarri A.	22.8	3.5	28.5
Altsasu	21	5	33.8
Aralar	18.7	0.6	64.2
Urbasa	-	3.7	32.2

: ilargiaren aldia >>

	ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
ilgora				
25	2	9	16	

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Maiatzeko

bazkide zozketa

MAIATZEKO SARIAK:

1. SARIA: Ekainberri museorako 2 sarrera, Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrera.

2., 3. ETA 4. SARIA: Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrerak.

>> 11


galdera

Javier Flores

eta Aritz Baquedano

Arkitektoa eta ingeniaria

Testua: Maialen Huarte Arano



Flores arquitectura estudioak 3 dimentsioetako inprimagailua du.

1. 3 dimentsioetako Sakanako lehen inprimagailua duzue.
Lehen da Sakanan, bai. Berrikuntzen alde egiten dut beti eta interesgarria iruditu zitzaidan inprimagailu batekin lanean hastea.

2. Elkarlanean aritzen zarete.
Inprimagailua eskuratu bezain pronto konturatu nintzen gaia gehiago kontrolatuko duen norbait behar nuela ondoan. Aritzek Industria ingeniarietza bukatuko du aurretan eta hiru dimentsioetako inprimagailuekin asko ibili da.

3. Aritz, zergatik horrenbesteko interesa?
Ingeniaritza industrialaren barruan arlo asko landu daitezke. Hiru dimentsioetako inprimagailuak oso gailu berriak dira eta gero eta indar handiagoa hartzen ari dira. Etorkizunean are garrantzia gehiago izanen dutela uste dut. Oso baliagarriak dira.

4. Zertarako da baliagarria hiru dimentsioetako inprimagailua?
Ordenagailuan hiru dimentsioetako edozein gailu sortu eta horixe egia bilakatzeko kapaz da. Make takegiteko baliagarria da edo diseinuren bat eskuartean nolako den jakiteko. Baina haratago ere badoa. Medikuntzan hasi dira hiru dimentsioetako inprimagailuak eskaintzen dituen baliabideak lantzen.

5. Zer nolako tresnak sor ditzake?
Buruan dauzkagun edozein ideia planteatu diezaiokezu inprimagailuari. Hau da, edozein enpresak adibidez, tresna edo gailu berri bat ateratzeko asmoa badu, lehenbizi probak egiten ditu eta maketak. Garestiak dira horiek

sortzea, baina, inprimagailuaren bidez, tresnaren tamainaren arabera merkeago eskura daiteke sortu nahi duten hori. Inprimagailuak plastikoarekin egiten dituzte gauza guztiak eta gureak adibidez, 20x20ko neurria duten tresnak sor ditzake. Bi ordutan, zenbait produktu sortzeko gai da.

6. Lehenbizi ordenagailuan sortzen dira gero inprimagailuak egiten dituenak.
Bai. Sortu nahi den produktua edo tresna, lehenbizi ordenagailuan marraztu behar da. Egiten den hori, xaflatan zatitzen du inprimagailuak eta sistema horren bidez sortu daiteke eskuartean ondoren izanen dugun hori.

7. Inprimagailu honek mugak ere baditu.
Bai. Tamainaz ez da oso handia eta tresna edo produktu zilindrikoak ezin ditu sortu. Oraingoz tresna txikiak egiten ditugu. Adibidez, etxeko tresnetan apurtzen diren pieza sortu ditzakegu. Demagun, arropa garbigailuaren pieza txikiaren bat izorratzen dela. Guk hemen pieza hori ordenagailuz kopiaitzen dugu eta inprimagailuak egiten du. Azkar eta merke egiteko aukera eskaintzen du.

8. Jendeak jo du zuengana?
Oraindik ez du jendeak ongi eza gutzen zer egiteko gai den inprimagailua. Baina, puskatzen diren gailu txiki horiek erreproduzitu ditzakeela jakitean edo bestelako tresna txikiak eta bereziak sortze-

kogai delajakitean, bai, hurbiltzen dira gugana. Bitxiak, bitxiak gordetzeko kutxatxoak, apurtzen diren pieza... sortzeak erraztasunak ematen dizkiela hartzen dira eta gutxika etortzen dira galdetzerata eta proposamenak egitera. Espero dugu hemendik aurrera eskari gehiago jasotzea.

9. Inprimagailu gehiago izateko aukera aztertu duzue?
Bai, laster iritsiko da gainera. Orain dugunak ez du gaitasunik tresna zilindrikoak egiteko, hortaz, tamainaz handiagoa den bat eta borobilak diren gailuak egiteko gai dena ekarriko dugu.

10. Etorkizunean garrantzia handiagoa izanen du halako inprimagailu batek. Zergatik?
Efizientea, merkea eta azkarra delako. Edozein tresnaren pieza puskatuta eta ohiko dendetan eskuratzen ezin direnak, zaharkituak daudelako edo, sortzeko balio du. Industriek ere jo dezakete halakoetara: euren sortzen dituzten produktuak lehenengoz egiteko aukera hobea eskaintzen die. Medikuntzan ere, herritarren batek galdu duen esku erreproduzitzeko balio du eta egiten ari dira dagoeneko.

11. Zuek zertan zentratuko zarete hemendik aurrera?
Edozein eskari hartzeko prest gaudu. Norbanakoan zein industrian sortu daitezkeen beharrei aurre egiteko ere. Bitxiak sor ditzakegu, bereziak eta bakanak baina baita edozein beste pieza ere.

Festa hotsa heldu da

Festa programak diseinatu eta inprimatzen ditugu

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.net

%5eko deskontua Bierrik Fundazioko bazkideei